

# ARGIA



EXODOA TWITTERRETIK

## *Sare sozialetan praktikak aldatzeko ordua*

26-31. orrialdeak



**Bortxaketaren  
kultura argira  
ekarri duen auzia**

12 | GISÈLE PELICOT



**"Aiaraldeko  
Faktoriarekin sekulako  
ikusgarritasuna ematen  
diogu euskarari"**

16 | IZAR MENDIGUREN



**"Aldaketa ematen ari da  
euskaratik komikigintzaren  
esparruan"**

46 | PAULA ESTÉVEZ

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

**LARRUN #302**  
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



KONGO ETA KOBALTOA

KRIMEN BATEN FROGA SOINEAN

[ARGIA.EUS/LARRUN](http://ARGIA.EUS/LARRUN)

## Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO  
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ILUSTRAZIOA: ADUR LARREA

## Iritziak

- 21 | JESÚS RODRÍGUEZ
- 22 | KATIXA DOLHARE
- 23 | IÑIGO MARTINEZ
- 23 | ARANTZA GUTIERREZ
- 24 | ENEKO GORRI

## Finkoak

- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



### 46 | PAULA ESTÉVEZ ILUSTRATZAILEA

Gorka Peñagarikanok elkarrizketa egin dio *Linbo planeta* komiki-liburua plazaratu berriari. Tupust! Kolektiboak argitaratu duen hirugarren eta azken lanaz ere mintzatu dira. Eta ilustrazioak gure iruditegian duen tokiaz, bestelako gaiak eta egile emakumeak plazaratzeko egindako bideak...

## Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

### Bortxaketaren kultura epaitzeko plaza bihurtu dute mazango auzia

Jenofa Berhokoirigoin

16 | PERTSONAIA | IZAR MENDIGUREN

### “Ni euskaraz bizitzeak ez du esan nahi beste hizkuntzei eta kulturei ateak ixtea”

Miel A. Elustondo

26 | SARE SOZIALAK

### X utzita, nora joko dugu orain?

Asier Iturralde eta Jon Torner

32 | HISTORIA

### Denboraren harrizko gorpila Iruñeko katedralean

Josu Narbarte

36 | FEMINISMOA | S. BALEZTENA- N. SANTACRUZ

### “Frustrazioa eragin dezake bularra ematearen onurak azpimarratzen dituen diskurtsoak”

June Fernandez

#### Jabetza

Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

#### Erredakzioa

Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizaguirre, Gorka Peñagarikano, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Julene Flamarique, Lander Arbelaitz, Leire Artola, Leire Ibar, Manex Moreno, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

#### Diseinua

Maitane Gartzandiandia

#### Argazkilaria

Dani Blanco

#### Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

#### Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

#### Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

#### Banaketa

Olatz Korta

#### Azoka

Mikel Olabide

#### Idazkaritza

Ane Gaztelumendi, Aloña Soraluze, Bego Zuza

#### Web garapena

Asier Iturralde

#### Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

#### Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

#### GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

#### Posta elektronikoak

 komertzial@argia.eus  
komunitatea@argia.eus

#### Telefonoa

943371545

#### Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

#### Nafarroa

 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,  
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:



## Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.



Ekoedizioaren Institutuko bazkide da ARGIA



Ekonomia sozial eraldatzailearen sareko kide gara

# Merkatua da, lagun

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak etxebizitza duina izateko eskubidea aitortzen du, bizi-maila egokia izateko eskubidearen parte gisa. Antzeko terminoetan mintzo da Hego Euskal Herrian inposaturiko Konstituzioa ere bai. Baina, letra txikiak, hain txikia ezen ezin den irakurri, eskubideari gehitu dio ondokoa: "...baldin eta dirutza baduzu". Ezin hobekien laburbildu zuen "sozialista" batek, ustelkeriagatik inputatuta dagoen Espainiako ministro ohi batek: "Etxebizitza eskubidea da, baina baita merkatuaren salgaia ere". Prezio neurrigabeak, merkatu ultraliberalizatua, lur publikoaren pribatizazioa, espekulazioa, banku eta funts putreak, lan prekarioak, turismo masiboa, etxegabetzeak –2013tik 2024ko irailera bitartean, gutxienez 11.091 izan dira EAEn, haien arrazoi nagusia izanik "alokairua ezin ordaintzea"—... eta horri guztiari aurre egiteko gobernuak 250 euroko bonu bat ematen dizu. Etxebizitzaren bueltan elkartzen dira bizi gaituen eredu ekonomikoaren ezaugarri ia guztiak. Beraz, galdera da, egoera hobetzerik ba al da eredu ekonomiko eta politikoa eraldatu gabe?

📍 Etxebizitzak negozio izateri utz diezaion eskatzeko manifestazio jendetsua zapatuan, Bilbon. **ARITZ LOIOLA / FOKU**

 **AXIER LOPEZ**

ETXEBIZITZA

NEGO



ZITZA

ESKUBITSE

BEMATU

OZIOARI

EZ

# Idorrak dira munduko lurren %40, eta lehortze bidea egin dute lurren %75ek

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

**A**zken 30 urteetan, 4,3 milioi kilometro koadro lur idortu dira munduan, Nazio Batuen Erakundeak kaleratu duen txostenaren arabera. COP16ko biltzarraren testuinguruan aurkeztu da azterlana. Bide honetatik jarraituta, mende amaierarako, 5.000 milioi pertsona baino gehiago biziko dira lur idorretan. Arazo humanitario, ekonomiko eta sozial ugari eragingo lituzke horrek. COP16an ari dira gogoetatzten teoriko batzuek aspaldian darabilten ideia honen inguruan: klima larrialdia ez dutela soilik karbono isuriek eta berotze globalak ekarri, bioaniztasun galerak eta uraren zikloak ere garrantzia handia dutela. Urko Apaolaza ARGIAko kazetariak *Eta klimaren konponbidea baso eta paduretan ere balego?* artikuluan horixe azaltzen zuen, Mediterraneoko arroko ekaitzen inguruan ere hitz egiteko, eta erreferentzia egiten

“Mundu osoko lur zabalei eragiten dieten klimarik lehorrenak ez dira itzuliko izan zirenera, eta aldaketa hori lurreko bizitza birdefinitzen ari da”

zion urtarrilean argitaratu genuen *Larrrun* gehigarriari: *Uraren zikloa. Klima zorratzearen beste gako hori.*

Azken hiru hamarkadetan okertu egin da panorama eta kezkarriago egin ahal bazen, halakoxe bihurtu da larrialdia. Munduko lurren hiru laurdena berotu egin da "behar baino gehiago", NBERen esanetan, eta lur idorrak, 30 urteko epean, biderkatu egin dira. Kana-

daren tamainako lur kantitateak jasan du "ageriko aldaketa": hau da, gutxiengo marjina batzuk gaudituta egin dute lur horiek lehortze bidea; batzuk bate-re lehor ez izatetik, zertxobait lehorrak izatera. Gaur egun, Antartidaren zatia kenduta, planetako lur guztien %40 da lehorra.

## IDORTZEKO ARRISKU-GUNE HANDIAK

Ia Europa osoa sarturik dago larrialdi egoera horretan, kontinentearen ia %96. AEBetan ia mendebalde osoa ere horrela dago, Brasil oso-osorik, Asiaren ekialdeko zatia eta Afrika erdigunea.

Zonalde zabal horiek aipaturiko tendentziari jarraituko baliote, arazo larriak suertatu litezke. Europan, Mediterraneoaren ingurumarian bereziki, laborantza-lurrek kalte konponezinak jasango lituzkete, lurren sikatzea eta ur falta, edo euria egitean, bortizki egitea. Hego Amerikan larria litzateke ur eskasia ere bai, baina baso-suteena "bereziki kezkarria" dela seinalatu dituzte azterlanaren egileek. Afrikan eta Asian, bestalde, ekosistemen degradazioa eta desertifikazioa nabarmendu dute, animalia eta landare espezie ugari desagertuko lirakeke-eta.

## KALTEAK BIZIMODUAN

Eguneroko bizitzan, ohituretan edota kalitatean bertan, kalte larriak eragiten ditu, eta eragingo ditu, larrialdi klimati-koak. Ekosistemari min egiteak ur sarbidea kaltetzea ekarriko luke, laborantza izorratzea, eta horrek guztiak, funtsean, osasunean eragin. Afrikako eta Asiako pobrezia areagotzea ekarriko luke biodibertsitatea galtzeko tendentzia horrek: txostenaren arabera, 2030erako, 35 eta 122 milioi pertsona gehiago leudeke muturreko egoeran.

Horrez gain, espezien habitata %55 murriztu ahal daitekeela ere badio azterlanak, ur eskasiaren eta nekazaritzaren kolapsoak eraginda. ●



## MATERIALISMO HISTERIKOA

## EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA  
www.adurlarrea.com

# Zuentzat



UXUE APAOLAZA LARREA

**A**raiak esan dit zuei idazteko. Esan dit, utzi baino lehen (aurten egingo dut), nire testu bat eraman nahi dizuela, nik ez dizuedala inoiz eraman, eta merezi duzuela, harro sentituko zaretela nitaz. Ezin da horrelako aukera bat galtzen utzi. Ez dakit jada esan ez dizuedan zer esan ahal dizuedan. Baina hor joan zaizkizue, zeharka, klasean erreparatzeko zehar estiloa, eta erlatiboazko bat.

Araiak eta biok ikasle berberak ditugu Hernaniko AEKn. Nireak izan zineten, eta bereak zarete orain. Ez Araiak, ez nik, Hernanialdeko gure euskaltegiko batzuek bezala, ez dakigu oso ondo A1, B1, egiaztagitza, HABE... zer diren. Ez dakigu Arian zer den, ez dakigu etxean bakarka nola ikasi ahal den. Edo oso ondo dakigu, eta nahiago dugu ilehoriarena egin, burokrazia eta euskalgintza hiztegietatik harago bereizteko eguna iritsi arte. Dut-ka ibili zarete hiru urtez. Baina Araiak tresna hori aurten eman dizuen arren, guk hasieratik zaituztegu. Ikasi zaituztegu, entzunez, usainduz... Clara, Mireia, Noe; ikasi zaituztegu, begiratzuz, dastatuz... Maria eta Andoni; ikasten zaituztegu elkartuz eta elkartuz... Jessica, Khalil, Kevin, Jacinto, Nora...

Araiak eta biok badakigu jolasten. Araiak eta biok, berak hau idazteko eskatu didanean, ni idazten ari naizen bitartean, badakigu zuei esker garena. Araiak eta biok lasai utziko dugu lan hau larrua jotzearen (ipuin bat idaztearen) antzik ez duen egunean.

Euskaltegira sartu, eta gure begiradak gurutzatu ziren unetik beretik, Araiak eta biok biziki zaituztegu. Eskerrik asko, ekipo. ●

## DESZAKUNDEA ORAIN!



## MOTZEAN

Urretxindorra Ikastolako (Bilbo) eta Azkue Ikastolako (Lekeitio) bi irakasleren aurkako salaketak egin dituzte zenbait emakumek. Horren aurrean, Urretxindorra ikastolako irakasleak klase gehiago ez ematea erabaki du Ikastolen Elkarteak. Lekeitioiko irakaslea, berriz, erretiratuta dagoela azaldu dute.

Petrolio-ontzi batek 4.300 tona isuri ditu Itsaso Beltzean, eta beste bat noraezean dabil, astekari hau ixteko unean (abenduaren 16an). Ukrainak arduragabekeria egotzi dio Errusiarri.

ELB sindikatuak ardi mihir urdinaren eritasuna pairatu dutenendako elkartasunera deitu du. Abendu hastapenean, departamenduko 650 ardi etxalde hunkiak izan dira.

Iruñeko auzo guztietan euskarazko murgiltze ereduak duten haur eskolak ipintzeko eskatu diote udalari. 12 haur eskola publiko daude Iruñean, eta bakarrean dago euskarazko ereduak.

Hezkuntza publikoko lan baldintzak hobetzea aldarri, urtarrila-otsailean sindikatuak lau greba egunetara deitu dituzte irakasleak, haurreskolako langileak, sukaldariak eta garbitzaileak.

## Loa



ULA IRURETAGOIENA

Loa ederra eta errauskinaren irudia izan du hizpide aurtengo Feministaldian Irene Coulon-en hitzaldirak. Loaren ideia kulturalak zartatu ditu, loaldia ere maskulinizatua dugula argituta. Loaren irakaspen (kultural) asko barneratuak ditugu, eta gorputz feminizatuan edertasunaren ideiarekin bilduak dira horietariko asko, ondo lo egitea beharrezkoa baita aurpegia polita azaltzeko, ikusi zenbat kosmetiko dauden salgai begipeen arrastoak ezkutatzeke, aurpegi txarraren ideiar lotua.

Hizlariak amets feministaren begiradatik egin badu ere, lo espazio pribatua eta kanpoko begiradatik aldentuta egitea ikasia dela azpimarratu du. Hainbat marrazki historikotan ikusgai dira loaldi kolektiboak, generorik gabeko espazio zabaletan, lo kuluska egiteko prestaturik gune horizontal bigunekin, gorputz bat bestearen ondoan deskantsuan eta errespetuan. Loa banaka eta intimitatean egitea, eta horretarako espazio itxi batera joatea, ez da ohitura naturala. Loa inproduktibitatearekin eta nagikeriarekin ulertzen ditugu, eta jarraian lotsari lotu diogu gorputz eta aurpegi erlaxatua kanpoko begiradari uztea (zenbat barre lotako aurpegi argazki lapurtuekin). Espazio pribatu eta banatua bakarrik uzten dugu deskontrol eta lasaitasuneko gura. Autobusean bakarrik ikusten dira gorputz lotiak gune publikoan, eserlekuen antolaketa ematen duen babesean. Kallean lotan daudenak eskaleak edo mozkorak dira, pentsatzen dugu automatikoki.

Aurtengo Oiarzungo Poesia Egunean, Metrokoadroka Sormen Laborategiak irakurketa poetikoen ondoren elkarrekin lo egitera gonbidatzen zuen, performance formatuan. Ekintza arrakastatsua izan dela entzun dut eta errepikatzeke ideia omen dago. Iraultza baita loaldi kolektiboak egitea, eta plazer handia. Bilboko Azkunan, Steve Paxton-en erakusketan zonalde bat egokitu zuten lo kuluska egiteko, gorputzaren biguntasuna leku publiko batean probatzeko proposamenarekin. Zenbat iraultza biltzen diren loaldi publikoen eskakizunetan! ●



## Katxondeoa gizonena da

**GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA**

Osogertu daude, praktikan, “gaur egun ezin da ezer esan” dioen koinatua eta “aske naiz nahi dudana egiteko” esaten duen ustezko progrea. Ustezko askatasuna. Ustezko ustezkoa. Demokraziak parekatu behar zituen gizakiak, eta sare sozialek, komunikazioak. Denok ginen berdinak, ustez.

Koinatua egon daiteke hizketan magrebtarren inguruan, edo *chico/chica/chique*-ei buruz, horrela, elkarren segidan esaten, modu iraingarrian; izan ere, *orain-arte-bi-ziren-eta-orain-hamar-mila-dira*. Generoak, jakina. Ze, ondo asko dakigu gaur egun ezin zaiola kamarerari *guapa* deitu. Eta ezin direla gauza batzuk esan.

Bigarren lagunaren esaldiak, nahi duena egiteko aske dela aldarrikatu duenak, honela segi dezake: “Ezin al dut, bada, nire hamar [gizon] lagunekin elkartu eta ondo pasatu musika egiten?”. Buelta horretako beste kideren batek, zera: “Nire lagunekin parranda egiteko modu bat da, zer du desegokitik?”.

Egia da: gauza batzuk ezin dira esan. Gauza batzuk bai, esan daitezke, eta kritikatu ere bai. Erraza ere bada, zenbaitetan, jende bat ezkerretik kritikatzeko. Baina beste gauza batzuk ezin dira seinatu, seinatuz gero egurra jasotzen baituzu. *Modernitis*-ak erradikalki harrapatu gaitu, ezkerretik eta eskuinetik. Gauza batzuk *guay*-ak direlako, *guay*-egiak boz goran kritikatzeko.

Gauza batzuk *guay* izatea lortzen dute auskalo zergatik. Beno, badakigu dela hargatik.

Euskal Herrian barreiatzen den musikan, *guay* bihurtu dira konkretuki bi-hiru talde azken boladan. [Gizonenak]. Donostialdean bateren bat, *castellano vulgarrean* fin. Baina ez gara horietaz bakarrik ari. Musika *guay*-a egiten dute, musika *guay*-a delako orain runba, salsa eta, oro har, *musika latino*a deitu ahal zaiona. “Ondo pasatzeko musika”. Esan nahi baita: bost, hamar edo hamabost gizon oholztan “txoroarena” egiten egotea. Jendaurrera lasai igotzeko gaitasuna edukitzea, baita instrumentuak ganoraz jotzen ondo jakin gabe ere. Eta gero, lasai ederrean, Kaparrak taldeak *El Salto*-ri emandako elkarrizketan hau esatea: “Euskal Herrian ez genuen horrelako ezer ikusten eta guk egin nahi izan genuen”.

Baita hau ere: “Gu beti identifikatu gara katxondeoarekin eta *beef* txiki bat bota nahi izan genuen txosnetan jo ezinaren ondorioz”. *Beef* bat. Alegia: oholtzara ez igotzeko esan arren, sudur puntan jarritakoa egin. Hala nahi dutelako. Ahal dutelako.

Koinatuarenak orain artekoak. Ustezko progrea lagunak hau ere badio: “Nahi duguna da parekidetasun bat egotea eta denek aukera berak izatea. Espero dugu emakumez osatutako talde gehiago sortzea eta gizonen ematen zaizkien aukera berdinak ematea”. ●



# 118

aldiz handiagoa da, batez bestekoa baino, zuzendari exekutiboen soldata Espainiako enpresarik handienetan. Ia 24 milioi euroko ordainsaria jaso zuen Jesús María Herrerak, CIE Automotiveko zuzendari exekutiboak, 2023an.

# 74.000

paneleko zentral fotovoltaiko berri bat eraikitzen hasi dira Erriberrin. GES-Global Energy Services enpresak hasi du proiektua, Euskal Herriko handienetakoa. 50 MWp-ko potentzia izango du.

# 1/2

Joan den hilabeteen Gazako sarraskian Israelak hil dituen herritarretatik %48 haurrak izan dira. Alegia, hiltzen dituen haurren proportzioa txikitu beharrean, handitu egin du, %42-tik %48ra.

Bihurtu ditzagun lagunak  
bizitzaren tenplu,  
badakitenak zer, noiz, nola,  
eta non galdetu.  
Entzuten gaituztenak nahiz ta  
pixkat logaletu,  
ta etxe bihurtzen dutenak  
edozein ezleku.  
Mendeko hitza bilakatu  
den hontan mendeku,  
disolba dezagun eskuina  
eta auzoa ezkertu,  
egon gaitezen lagunekin  
hauskor ta "inprefektu",  
elkarrengandik gertu eta  
elkarrentzat gertu.

*Txapela, laguntasunari: "Horixe kantatu nahi nuela pentsatu nuen. Ni oraintxe lotuta bizi naiz zaintzari, aurtengo urtea izan da erabat zaintza eta tarteka bertsoa. Eta bertsoa sekulako arnasegunea eta oparia izan da, zaintza izan den bezala"*


*"Gaia entzuten dudanean saiatzen naiz ez pentsatzen, ez ona den edo ez txarra den, askotan gaiak berak sorpresak ematen ditu eta. Askotan jarrerak berak baldintzatzen du bertsoaldia"*

*"Batzuetan txapelketan kontrolera eta estu errimatzerara jotzen dugu, baina igual esatearen kaltetan. Etortzen zitzaidana gehiago zen esateko, estu errimatzeko baino"*

#### ALAI MARTIN

2024ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako irabazlea.

NAIZ.EUS (2024-12-16)



ANDREA BOSCH ALFARO

# Oinak lurrean



DIANA FRANCO EGUREN

Interneten Willow hitza bilatzera-koan oraindik txikitan ikusi nuen pelikula baten izenburua agertzen da. Fantasiaz beteriko pelikula hartan, Willow izeneko gizon txiki batek, protagonistak, mundua eraldatu zuen, erresuma zapaltzaile batetik herritarrak askatuta. Google-k Willow izeneko txip kuantikoa atera berri du, egungo ordenagailu indartsuenak milioika milioi urtetan –nire buruak ulertu ezin dituen zifrez hitz egiten dute– egingo lituzkeen eragiketarak bost minututan egiteko gaitasuna duena. Horrek Interneteko “arau” guztiak hankaz gora jar ditzake.

Pelikula gogoan izanda, beharbada pentsatu dezakegu txip txiki horren sortzaileak lantzen ari direla Google eta bestelako korporazio teknologikoen zapalkuntza ereduak barrutik akabatzen saiatzeko modua. Baina, zoritxarrez, ez da hala izango, txip horren ideia supremazia betikotzea baita.

Bitartean, Google munduko supremazia teknologikoagatik borrokatzen ari den hiri berean, AEBetako San Frantziskon, fentanilo droga plaga bilakatu da. Hainbestekoa da duten arazoa, ezen kaleetan beste berrikuntza bat aurkitu daitekeen: hilgarriak diren gaindosiengatik jendea hil ez dadin, botikak banatzeko makinak jarri dituzte.

Tsunami teknologiko zapaltzaileak jarraitzen du areagotzen, eta horrek eragin handia izango du hezkuntzan, osasunean... bizitzan, azken finean. Baina liluratu barik, oinak lurrean izanda, ikuspuntuak partekatu, eztabaidatu, eta alternatibak sortu ditza-gun. Berria den guztia ez dugu behar, baizik eta gure bizitzak mundu aldakor honetan ahalik eta ongien bizitzen lagunduko diguna baino ez. ●



## Frantzian bakarrik frantsesez

### ERREDAKZIOA

par Kataluniako udaletan katalana erabiltzea debekatu du Frantziako justiziak. Okzitaniako Tolosako Apelazio epaitegiak eman du epaia, eta horren arabera, udaletan ezingo da katalana lehen hizkuntza moduan erabili, eta izatekotan, frantsesez egin ondoren, hura katalanera itzuli ahal izango da. Banys i Palaldá, Elna, Sant Andreu de Sureda eta Tarerac udalei eragiten die Tolosako auzitegiaren ebazpenak.

Auzia 2022tik dator, urte hartako apirilean Elnako Udalak erabaki zuen udal arautegia aldatzea katalanaren erabilera ahalbidetzeko, beti ere ondoren frantsesera itzultzeko beharrarekin. Beste hiru udalek bat egin zuten erabakiarekin. Ekialdeko Pirinioetako prefeta Rodrigue Furcy-k, ordea, helegitea jarri zien aldaketei eta auzitegiek arrazoia eman zioten. Montpellierreko Administrazio Auzitegiak bertan behera utzi zuen udal arauen aldaketa eta magistratuak zera gogorarazi zuen, “Errepublikako hizkuntza frantsesa” dela eta frantsesa itzuli beharrak egoera okerragoan uzten zuela hura.

Udalek ebazpen horri helegitea jarri zioten eta orain, Tolosako Apelazio Auzitegiak antzerako argudioekin berretsi du katalanaren debekua. Zehaztu du Frantziako Konstituzioaren 2. artikulua arabera, Frantziako hizkuntza frantsesa dela eta hortik eratortzen dela udaletako lehen hizkuntza frantsesa izan behar dela.

### KORSIKAN KORSIKERAZ, EZ

Korsikako legebiltzarkideek ezin dute Korsikako Asanblean korsikeraz hitz egin, Bastiako Auzitegiaren 2023ko epai baten arabera. Ebazpen horri helegitea jarri zion Asanbleak, baina debekua berretsi zuen azaro amaieran auzitegi berak.

Korsikako Gobernuak eta Asanbleak, elkarrekin kaleraturiko agirian adierazi zuten epaiak korsikeraz hitz egiteko eskubidea baztertzen duela, baina euskarari, bretoierari, okzitanierari eta tokiko hizkuntza guztiei eragin diezaiekela, horiek erabiltzeko eskubidea ere baztertzen baitu, “ez soilik erakundeetan, baizik eta bizitza publikoari dagokion edozein ekimenetan”.

Emmanuel Macron Frantziako presidentearen hitzek sortutako harrotsetik astebetera iritsi zen albiste. Macronen arabera, “tokiko hizkuntzak nazioa zatitzeko tresna dira”.

### EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ?

Ezbairik gabe, aurrekari judizial arrisurtsuak dira Ipar Euskal Herriko udalentsat. Gainera, mota horretako inposaketak pairatu izan dituzte zenbait udaletan. Berbarako, 2014an Paueko Administrazio Auzitegiak atzera bota zuen Uztaritzeko Herriko Etxeak euskara hizkuntza ofizial izateko hartu zuen erabakia; eta 2019an, Uztaritzen bertan, bost hautetsik herriko kontseilutik dimititu zuten, eta Pirinio Atlantikoetako prefetak ez zituen dimisioak onartu, euskaraz zeudela argudiatuta. ●

# Datu zentro erraldoia Araban

 URKO APAOLAZA AVILA

**R**ibabellosan 300 megawatioko gaitasuna duen eskala handiko datu zentroa eraikitzen ari da Merlin Propertiers enpresa madrildarra. Milaka milioi euro ari da gastatzen Iberiar Penintsula osoan, ustez puntako teknologia “jasangarria” duten baina elektro-intentsiboak diren azpiegituretan.

Bilbao-Arasur Data Center Campus izena eman diote Ribabellosan eraikitzen ari diren datu zentro erraldoiari, Europa mailako handienetakoa izango dena. Abenduaren 3an inauguratu zuten eraiki nahi dituzten sei pabiloietan lehena, Imanol Pradales Eusko Jaurlaritzako lehendakaria eta Ramiro González Arabako diputatu nagusia bertan zirela, besteak beste.

Proiektua higiezin inbertsiora dedikatzen den Merlin Propertiers Socimi SA enpresa madrildarrak bultzatu du eta 300 megawatioko gaitasuna izango du amaitzerakoan. Ismael Clemente Merlineko zuzendariak inaugurazio ekitaldian azaldu zuenez, tokiaren aukeraketak zerikusia du Sopelarekiko gertutasunarekin, hara iristen baitira itsas azpiko zuntz-kable nagusietako batzuk.

## GLIKOLA, SISTEMA AURRERATU BAT?

Baina zuntz interkonexioa ez ezik, eta elektro-intentsiboak diren heinean, energia kontsumoa ere faktore garrantzitsua da “hiper eskalako” esaten zaien datu zentro handi hauetan. Elektrizitateaz gain, ura erruz gastatzen dute euren sistemak hozteko. Merlinek azaldu duenez, baina, Ribabellosako datu zentroak “urik gastatzen ez duen hozte sistema aurreratua” dauka.

Zerbitzariak hozteko glikola erabiliko du, motorretan eta hozte-industrian arras ezaguna den konposatu kimikoa, ura baino dentsitate handiagokoa. Zirkuitu itxi hori airearekin hozten da ordea, eta hortaz, energia handia beharko da, baina enpresak ziurtatu du “100% berriztagarria” izango dela. Araban, hain zuzen, zentral fotovoltaikoen eta bestelako azpiegituren kontzentrazio



Imanol Pradales EAEko lehendakaria, Ismael Clemente Merlingo zuzendaria eta Ramiro González Arabako ahaldu nagusia, datu zentroaren irekiera ekitaldian.

Merlinek aipatzen duen sistema “aurreratu” hori ez da berea. Enpresa madrildarra AEBetako Endeavour multinazionalaren filiala den Edged konpainia soziotzat duela ari da datu zentroak eraikitzen

handia aurreikusten dute Jaurlaritzaren planek eta enpresa askoren asmoek.

Baina Merlinek aipatzen duen sistema “aurreratu” hori ez da berea. Enpresa madrildarra AEBetako Endeavour multinazionalaren filiala den Edged konpainia soziotzat duela ari da datu zentroak eraikitzen. Edgedek, bere marketinean, ThermalWorks izeneko “teknologia” darabilela aldarrikatzen du, eta horrekin beste datu zentroek baino

%74 energia gutxiago gastatzen duela. Portzentajea hobeto ulertzeko: datu zentroen batez besteko energia erabileraren efizientzia (PUE) 1,58 bada, Edgeden datu zentroena 1,15 dela diote. Asko edo gutxi da?

## DIRUA HORMIGOI ETA KOBREAN

Merlinek datu zentroak zabaldu edo handitu nahi ditu Iberiar Penintsula osoan. Ribabellosako azpiegiturez gain, Lisboan eta Kataluniako hainbat tokitan ere baditu proiektuak. Horretarako, kapital handitze bat egin berri du bere akziodunen artean eta 2.000 milioi eurotara iritsi da. Sozietate anonimoaren jabe nagusiak Santander bankua eta Nortia Capital dira, azkeneko hau Manuel Lao enpresari espainiar milioidunaren esku dagoen holdinga da.

Pasa den uztailean, kapital handitze hori egiteko unean, enpresako iturriek La Vanguardia egunkariari azaldu zioten diru hori guztia “gastatu” egingo dutela. Zertan? “Herena hormigoian eta altzairuan, eta beste bi herenak kobreak, kableetan eta teknologian”. ●

# BORTXAKETAREN KULTURA EPAITZEKO PLAZA BIHURTU DUTE MAZANGO AUZIA

Hiru hilabetez iraun du Mazango auziak, Gisèle Pelicotek irekitakoa, zeineten ikertu duten urte luzez senarrak somniferoz drogatatu eta berak zein beste dozenaka gizonak 200 bat aldiz bortxatu izana. 51 gizon epaitu dituzte, eta senar ohi Dominique Pelicotentzat 20 urteko kartzela zigorra galdetu du prokuradoreak, lau eta hemezortzi urte artekoak besteentzat. Hor arte kasu higuin-

garri horrena; azkenean, Gisèlek nahi izan duelako fokua zabaldu, oinarrian eta osotasunean dagoen osagaiari begira jartzeko: bortxaketaren kultura. Epaiketa auzitegiko atepak hetsirik bideratzea ez zuen onartu, hain justu, arazoa plazaren erdira ekarri eta "bortxaketa gauza arrunta bihurtzen duen jendarte matxista eta patriarkal honek begiak irekitzeko".

## JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

**B**ere horretan ezohiko ezer ez dut deskubritu, ezpada handitasunarena, orain arte ez genuelako ikusita 50 bat akusatu dituen [bortxaketa] kasurik. Baina, bestela, ez da ezohiko ezer egon eginmoldean, bortxaketaz dagoen ikusmoldean edota biktimaren izaeran –ausardia mugagabea, epaiketarik zerbaiteko balio izanaren helburua eta epaitegiko atepak ireki izana–. Finean, auzi horrek oroitarazten digu bortxaketa ze heinetaraino den estrukturala gure jendartearen". Anne Bouillon abokataren hitzak dira, eta Mazango (Okzitania) auziaz ari da, Gisèle Pelicotek irekitakoaz, senarrak urte luzez somniferoz drogatatu eta berak zein beste dozenaka gizonak 200 bat aldiz bortxatu izanagatik. *Mediapart*-en *#MeToo et la justice: après le choc Mazan, en finir avec*

*la culture du viol?* (#MeToo et justizia: Mazango kolpea eta gero, bortxaketaren kulturaren bukaera ote?) mahai-inguru mamitsuan entzun daiteke Bouillon en analisia.

Erreportajea idazten ari garela ez dugu ezagutzen Mazango bortxatzaileei bideratutako zigorra, haatik, irakurleak eskura ukanen duenean bai, jakina izanen da. Bizkitartean, prokuradoreak hogeitau urteko presondegiko zigorra galdetu du Dominique senar-ohiaren kontra eta hamar eta hemezortzi urte artean beste gizonentzat –bakar bati leporatu zaio "kaltetze sexuala" eta lau urteko kartzela zigorra eskatu da bere kontra, beste guztiei, ordea, bortxaketa–. Irailaren 2an abiatutako 51 gizonen kontrako epaiketarik luze iraun du, eta hor egon da Gisèle, defentsaren argumentu eta azalpen bortitzak jasotzen, berean tinko eta

zut, hurbilekoez inguratutik, baita egunez egun sendotu eta masifikatu egin den babes feministaren indarrari esker irauten.

Zigorra dena delakoa izanda ere, bere horretan ekarpen andana utziko dizkigu Gisèlek irekitako auziak. Goazen hemen batzuk zerrendatzera, *mainstream* komunikabideen kontakizunen azterketatik eta ezker eskuin atzemandako analisi feminista bakane-tarik abiatutik.

## ESTEREOTIPOAK HAUTSI

Bortxaketari loturiko estereotipoak bistarazi eta deseraiki izana litzateke bata. Alde batetik, bortxatutakoa fer-mu eta ahalkerik gabe agertu izanak biktimaren ohiko iruditegiarekin talka egin du: ez da suntsituriko pertsona gaixo –gizajoaren zentzuan– bat, ezta



**GISÈLE PELICOT** Epaitegiko atek irekirik atxiki nahi izan ditu, auzia publiko egin, bere hitzetan, "lotsak alde aldatu beharra duelako".

histeriko kontrolaezin bat ere. Gisèlen "duintasuna" azpimarratu dute kasik komunikabide guziek. Erran gabe doa duina dela, baina ondoko gogoeta zabaldu zuen *Libération* egunkarian Martine Delvaux idazle feminista quebec-tarrak: "Geldi gaitezen Gisèle Pelicoten duintasunaz hitz egitetik, ez delako biktima onik eta biktima txarrik. Indarkeria sexuala jasan duen pertsona oro da duina". Duen itxura zaindua, elegantzia, lasaitasuna eta odol-hotza azpimarratu dituzte kazetariak, behin eta berriz. Gisèlei elkartasun osoa erakutsi arren, ondokoa garatzen du Delvauxek: "Zorritzarrez, hedabideetako deskribapenek aipatzen ez diren guztiei buruz hitz egiten digute, ikusezin bihurtu ditugun edo 'biktima onaren' irudiarekin bat ez zetozelako sinetsi ez diren erasoak jasandakoak. 'Biktima ona' Virginie Des-

---

**"Geldi gaitezen Gisèlen duintasunaz hitz egitetik, ez delako biktima onik eta biktima txarrik. Indarkeria sexuala jasan duen pertsona oro da duina"**

Martine Delvaux

pentesez *King Kong Teoria* (Txalaparta, 2017) liburuan aipatzen duen 'emakume ona' ere da, hau da, ideal femeninoa, feminitate normatiboa, emakume batek izan beharko lukeenaren irudiaren antza duena, nahiz eta benetan ez existitu

emakume hori". Zer pentsatua ematen digu Gisèlentzako eta bestelako bortxatuentzako erabili izan diren deskribapenen alderatzeak. Hainbat adibide jartzen ditu iritzi-artikuluaren Delvauxek: "Nola hitz eginen genuen, hasteko, ez bazen zuria izan? Gaztea balitz? Tatuajeak eta piercingak balitu? Gona motzak, leotardoak, kamiseta motz eta estuak bazeramatzan? Sexu langilea, fabrikako langilea edo langabea izan balitz? Buruko gaitzen bat balu, edo ageriko ezgaitasun batekin bizi balitz? Burua makurtuta, oinak arrastaka edo ta bizkarra okertuta egonen balitz?"

Are nabarmenagoa izan da bortxatzailearen irudiaren gezurtatzearena. Epaituriko 51 gizonen profilak ikusirik, argi gelditu da erasotzailea ez dela "munstro" bat, ezta bat-batean gainera salto egiten digun ezezagun bat. "Bor-



LP/JEAN-BAPTISTE QUENTIN

**FEMINISTEN BABESA** Gisèle Pelicotek eskertu ditu feministak, lehen egunetik azkenera arte jasotako babesagatik, baina feministek ere diote eskertza bideratu, irekitako bidearentzat.

txatzailea gizon arrunta da, egunero-koa zintzoki daramana, bere inguruan ongi integraturikoa. Bortxatzailea ez da 'munstro' bat, bortxatzailea gizon arrunta da. 'Alterizaziorako estrategia' deitzen zaio horri, bi multzo sortzeari, gureaz desberdina den beste multzo bat sortzeari. Gureaz ezberdina den multzo horretan sartu ohi dira bortxatzaileak: marjinalak, 'eroak', kanpotiarak... Baina ez. Gure inguruko gizon arruntak dira, nahi edo ez –edo hobeki erran: nahiz eta nahi ez ukan–, idatzi genuen Mazango auziari buruzko *Monsieur Tout le monde* analisian.

Epaiketa auzitegiko atepak hetsirik egitea ez zuen onartu Gisèlek eta mundu guztiari zabaldu zion bere infernua, erabakia azalduta, gainera: "Lotsak alde aldatu beharra duelako".

## OINARRIAN, BORTXAKETAREN KULTURA

51 bortxatzaileek bortxaturiko emakumearen kasu espezifikoak soa zabaldu eta arazoa marko orokorragoan jartzeko balio izan du epaiketak: bortxaketa-

**“Sexu erasoaren biktima diren pertsona guztiei –emakume eta gizon– bideratzen diet borroka hori. Biktima guztiei erran nahi diet: ez zarete bakarrik”**

Gisèle Pelicot

ren kulturaren auzia izan da. Kultura bat delako bortxaketarena, antolaketa sistemiko batek bideraturikoa. Bestela, nola esplikatu dezakegu Mazango auzia bere baitan duen Frantziako Estatuan urtero 210.000 bortxaketa edo bortxaketa saiakera zenbatzea eta bortxaketa salaketan %94ari segidarik ez ematea Justiziak? Bortxaketaren kultura argira ekartzea ukan du xede Gisèlek: "Bada garaia bortxaketa arrunta bihurtzen duen jendarte matxista eta patriarkal

honek begiak ireki ditzan". Ondokoa zehaztu zion Gisèlen abokatu Stéphane Babonneauk ere epaileari: "Emakumearen gorputza konkista-objektu denaren ideiarekin bukatu behar dugu. Inork ez du erraten gizonak berez toxikoak direnik, baina anitzez aukera handiagoa dute bortxaketan egoteko, neurri handi batean haien eraikuntzan jaso dituzten errepresentazioengatik".

## FEMINISMOTIK ETA ANTIFEMINISMOTIK

Epaiketan zehar, feministek erakutsitako babeseta eta elkertasuna eskertu ditu Gisèlek: "Hunkitzen nau sakonki zuen sostenguak, eta ardura hartzen dut: zuek guztiei esker indartsu nabil borroka hori bururaino eramateko. Sexu erasoaren biktima diren pertsona guztiei –emakume eta gizon– bideratzen diet borroka hori. Biktima guztiei erran nahi diet: ez zarete bakarrik". Hain zuzen, auziaren lehen egunetik azkenera arte, dozenaka elkarte feministek eta milaka feministek babeseta erakutsi izan diotelako.



@ILHAN\_ALXDR

**ELKARRETARATZEAK, SOSTENGUZ** Elkartasunez, protestak egin ziren irailaren 14an Frantziako Estatuko dozenaka herritan. Argazkian, Baionako auzitegi aitzinean buruturiko elkarretaratzea.

Parean, argumentu antifeministaz jositako alegatua izan da defentsarena. *Mediapart-en Plaidoiries au procès Mazan: feu nourri contre les féministes* (Mazango auziko alegatua: feministen kontrako sua) erreportajeaz bildurik daude epaiketan entzundako esaldi antifeminista eta misogino batzuk: "Gizajo horien gainera gillotina erortzea da [feministek] espero duten bakarra"; "Joan daitezela Iranera ala Afganistanera [feministak]"; "alferrikako tentsio iturri izan diren parasito eta osagai [feministek] ez dezatela epaia bideratu"... Paperean idatzirik utziko ez ditugun esaldi higuindarriak

ere entzun behar izan dituzte Gisèle eta bere ingurukoek.

Funtsean, defentsaren adierazpenei begiraturik, argi gelditu dira bortxatuak babesteko Justiziak dituen ezintasunak. Edonorentzat lirateke jasangaitzak Gisèlek hiru hilabetez entzundako adierazpen lizun, zikin, bortitz eta suntsitzaileak. Ondokoa idatzi du abokatu Carine Durrieu Dieboltek: "Badira justifika ezinak diren defentsaren estrategiak –bizitza pribatuan edo sexualean bidegabeki sartzea eta irainak–, finean suntsitzea dutenak helburu. (...) Trauma gainkarga hori saihesteko, abokatuak neurritasunez eta gizatasunez de-

fendatu beharko lukete, eta epaileek bigarren mailako biktimizazioaren auziari heldu beharko liokete. Kontua ez da, noski, errugabetasun-presuntzioa eta defentsaren eskubideak gutxiestea, baizik eta gure zigor-prozeduraren oreka galdekatzea, Europako Giza Eskubideen Auzitegiak aholkatu bezala, beste printzipio konbentzional bat gehituta: biktimaren babesa".

Mazango auziaren testuinguruan, sexu erasoaren kontra doan lege integral bat landu dute 50 bat elkarte feministek. Nola ez, 130 neurri horien artean, Justiziaren esparruari dagokionak ere badira. ●



ZINKUNEGI  
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

[zinkunegioptika.com](http://zinkunegioptika.com)



# Izar Mendiguren

SALSA BERRIETAN BETI



## NI EUSKARAZ BIZITZEAK EZ DU ESAN NAHI BESTE HIZKUNTZEI ETA KULTUREI ATEAK IXTEA



Aiaraldea Komunikabidea sortu zuten lehen, eta Faktoria gero. Laudion dute egoitza, eta bertan ari da lanean Izar Mendiguren. Kazetari, bertsolari, musikari, militante... Ipurdi batez eserleku bi ezin estali litezkeela dio esaerak, baina hori baino handiagoa da Mendigurenen ahalmena.

 MIEL. A. ELUSTONDO  ZALDI ERO / ARGIA CC BY-SA

### **Aiaraldeko Kultur Faktorian ari zara lanean jo eta su...**

Euskararen sustapenean eragiteko, Aiaraldea Komunikazio Leihoa sortu genuen lehenbizi, egungo komunikabidea. Gero, Faktoria espazioa sortu genuen, euskararen erabilera indartzeko komunikazio proiektuez gain, komunitate egitasmoak behar genituela iritzita. Modu horretan komunikazioaz gain, feminismoa, elikadura burujabetza, hezkuntza, kultura eta ekonomia sozial eraldatzailea lantzeari ekin genion, besteak beste.

### **2021ekoa da Faktoria...**

Faktoria espazioa bai. Eta, ordutik ari gara sortzaileei oholatza eskaintzen, sormen egonaldiak antolatzen, emakume etorri berriak-eta ahalduntzen laguntzen, gida pedagogikoak, eskola edo "Familien kabia" zein udalekuak eratzen, tokiko

ekoizleak eta agroekologikoan dihardutenak saretzen eta ikusgarri egiten, energia plakekin bestelako balio batzuetan oinarritutako ekonomia sustatzen... Hamaika lanetan ari gara, baina, beti, euskararen komunitatea artikulatzeko, saretzeko eta eraldatzeko lanean.

### **Amurrioko Udalaren izena zikin ageri da azken aldian, euskararen normalizazioaren bidean hainbat atzerapauso eginda: euskara teknikaria, kiroldegian hizkuntz eskakizunak apaltzea, Aiaraldeko Faktoriarekiko jarrera...**

Ez digu aitortu euskarazko hedabide honen egiten duen lana, 6.000 euroko dirulaguntza etenez. Gure irakurketaren arabera, guztiz estrategikoak dira euskarazko hedabideak –are gehiago oraingo aro digital honetan–, eta, beraz, hizkuntza

politikek era honetako proiektuak sustatu egin beharko lituzkete. Irabazi asmorik gabeko proiektua gara, jendarteak irabazten du, eta euskarak, ertz guztietako berriei hitza, irudia eta soinua jartzen dizkiegu eta.

### **Amurrioko alkate zela ezagutu genuen Josune Irabien ARGIAN 2013an. Eusko Jaurlaritzan da orain, Euskara Sustapenerako Zuzendari. Amurrión, berriz, euskara atzerantz. Haren bitartekaritza eskatu genuen...**

### **Eremu erdalduna, Laudio.**

Bai. Ezagutza handia, adin batetik behararren artean, baina erabilera oso txikia da. Nik, hala ere, esperantzaren alde, esango dut Faktoria edota Aiaraldea Komunikabidea bezalako proiektuak sortzearen ondorioz, eraldaketa txiki batzuk





# Izar Mendiguren Cosgaya

LAUDIO, 1988



Kazetaritza ikasketak egina, *Berria* egunkarian eta ARGIA honetan bertan idatzia da. Bertsolaria, hainbat aldiz irabazi du Arabako eskolartekoa. Musikaria, Uluka taldeko ahots eta gitarra izan zen, Burbuilak-ekoa da orain... Aiaraldea Kooperatiba Elkarteko kide da hasieratik, eta Aiaraldea Ekintzen Faktoriakoa. Erabile suharra, euskaratik bezainbat ari da feminismotik, nahi beste egitasmotan buru-belarri sarturik. Beharrik, bere buruari freno jartzen badaki, fruiturik onena umotzen ari da Izar Mendigurenen baitan.



nabari direla, eta hazkundera ere bai, gure espazio eta produktu propioetan, behintzat.

## 2021ean ireki zenuten Aiaraldeko Faktoria hau...

Euskararen arnasmune izateko helburuarekin. Hona datorrenari horixe eskatzen diogu, euskararekiko konpromisoa, urratsak egitea, ardura kolektibizatzea, norbako berriak elikatzea, gure proiektua gorpuzten laguntzea, eta eraldatzea indartzea. Bizitza aldatuz doa, jendartea ere bai, hainbat arlotan ikusten denez: hezkuntzan, bizimoduan, elikaduran, kulturean... Eta hortxe dago gure erronka, hau da, garai, molde, behar, gorpuz edota identitate berrietara gure proiektu eta espazioak egokitzea.

**Bilboko Kafe Antzokia, Iruñeko Laba, Gasteizko Izaskun Arrue Kulturgunea, Azpeitiko San Agustín... hiri-herrietako erdigunean**



**Amurrioko Udalak ez digu aitortu euskarazko hedabide honek egiten duen lana, 6.000 euroko dirulaguntza etenez"**

**dira, Fakoria hau ez bezala, hau Laudioko industria-poligonoan baitago...**

Kar, kar! Ametsen fabrika delako! *Bizitzeko eta amesteko faktoria* da gure leloa. Gure proiektua ez da, bakarrik, Laudiokoa, eskualdekoa baizik: bederatzi udalerrri hartzen ditu gure eragin-eremuak, Urduñan hasi eta Orozko, Arrankudiaga, Zollo eta Artziniegariño... horixe delako gure bizi-eremu soziala. Aiaraldeko identitate hori, esaterako, ez zen existitzen 2009. urtea baino lehen, hau da, Aiaraldea Komunikazio Leihoa elkarte sortu eta sare-lanean komunikabidea eratu genuen urtea arte. Aiarako Kuadrilla Arabari dagokio, eta, aldiz, Bizkaiko udalerrriak ditugu Orozko, Arrankudiaga, Zollo eta Arakaldo. Gure eskualde soziala, ordea, Aiaraldea da. Hori ere adierazgarria da, proiektu honek asmatu egin baitu kohesioan eta saretzean. Beste arlo batzuetan ez zuen asmatuko, baina horretan, behintzat, bai.

### Laudioko industria-poligonoan...

Eskualdean batera eta bestera ibili ginen espazio ezberdinak begiratzen, Amurrio eta Audio inguruan, batez ere, populazio-masa handienak herri horietan dirrelako. Laudion, pabiloi haxe erosteko aukera sortu zitzaigun, eta aurrera egin genuen. Industriagunean dago, baina erdigunetik hamar minutura oinez. Bi minutura du tren-geltokia, eta ondo-ondoan, berriz, Nerbioi ibaia, joan-etorriko lekua: paseatzeko nahiz kirola egiteko bidea. Ez dago herrigunean, egia da, eta baliteke hori ere muga psikologikoa gertatzea, baten batzuek esfortzua egin beharra honaino etortzeko. Baina ez da eragozpena. Eta alde onik ere badu: gauzak antolatzeke, espazio handiagoa.

### Zer lan egiten duzu Aiaraldea Faktorian?

Etxe honetan denetarik egiten dugu denok! Kazetari ikasketak egin naiz, eta hastapenetik ari naiz Aiaraldea proiektuan. Aiaraldea Komunikabideak sortzen ibili nintzen beste zenbait lagunekin batera, eta, harrezkero, bertan egin ditut urterik gehienak. 2017an, feminismo-ildoak sortu genuen, eta, gehienez, komunikabidean zein feminismoan aritu naiz buru-belarri, nahiz eta gaur egun feminismoan eta kudeaketan murgilduta egon. Gogoeta estrategikoa egiten ari gara, proiektu honek 2030era begira jarraitu beharreko bideak arakatzeko. Ertz horietan ari naiz orain. Etorkizunean non ariko naizen, eta zertan, ez dakit, baina Aiaraldea proiektuaren barruan pozik eta edozertan jarraituko dudala lanean, seguru! Aiaraldea Faktoriako kidea naiz, gainerako guztiak bezala!

### Kidea... Laudion jaio eta hazia, unibertsitate ikasketak egin eta

### herrian bertan ari zara lanean. Kazetari, bertsolari, musikari, eragile...

Unearen arabera erabakitzen dut zeri heldu, eta zer pausatu. Eltze askotako buruntzalia naiz, saltsan nabil beti, eta unearen arabera jotzen dut saltsa batera edo bestera. Asko gustatzen zait sortzea, eta sortzaile zein pastel saltzailea izan litezke nire lanbide sozialak. Ni beti nabil saltsa berriak esku artean, batetik eta bestetik dastatzen, ea handik eta hementik zer ateratzen den, bideaz gozatzen ahalegintzen beti, emaitzan zentratu gabe. Horretan ari naiz...

### Noizdanik zabilta saltsa gizen batetik bestera?

16 urterekin hasi nintzen bertsoetan, eta segitzen dut oraindik. Hogei urte joan dira! Musikari dagokionez, etxean oso kantuzaleak izan gara. Autoan-eta, kantuan ari ginen beti. Uluka izeneko musika-taldea osatu genuen, lau urte egin genituen plazarik plaza, geure kanta propioak taulara eramanez. Halako batean, gu geu nekatu aurretik, amaitutzat eman genuen proiektu haren zikloa, ospatu eta itxi genuen Uluka. Pandemia ostean, berriz, ahizpak berriz ere belarriak berotu zizkidan, berriz ere musikari ekiteko, Urduñako pianojole bat ere arrantzatu genuen, inprobisatzen hasi ginen, eta Burbuilak sortu genuen.

### Musika taldea, berriz.

Bai. Asko gozatzen ari gara. Kanta berriak asmatu ditugu, diskurtso eta molde berriak esperimentatzen ari gara, jolasean, proiektu askatzaile eta eraldatzaileak dugu, eta erronka txikia dakarkiguna. Ez dugu kontzertu askorik egin nahi, gure helburua da geure kanta egin eta gozatzea, eta, ahal bada, kanta horiek



## ULUKA

“Ahalduz ariketa inportantea izan zen. Erregistro berriekin taularatu nintzen, gitarra hartuta jardutea. Horrek bestelako tentsioa zekarkidan, ziurgabetasuna. Bertsoetan mugarik ez nuen sentitzen, baina gitarra hartu eta jendarean kantatzea besterik izan zen. Oso fase polita izan zen, kontzertu berezi bat eginez itxi genuen”.

## KAZETARITZA

“Faltan botatzen dut kazetaritza, baina faltan dudana bestelako esparru batean bilatzen saiatzen naiz: feminismoaren ildotik, solasaldiak antolatzen ditugu, eta elkarrizketak egiten ditut. Beraz, rol horretan arazoaren erroa joateko botere edo pribilegioa daukat, eta zilegitasuna, baldin eta testuinguruak ahalbidetzen badu, eta giroa hori bada. Kazetaritza faltan dut, baina praktikatzeko modua ere bilatzen dut”.

## ERAGINA

“Iaz hasi genuen Aiaraldeko Faktoriaren lanaren balantze soziala egiteko ariketa, eta bistakoa da sekulako ikusgarritasuna ematen diogula euskarari. Egunero lanean ari garela, ez gara horretaz ohartzen, baina balantze sozial horrek erakutsi digu inpaktua oso handia dela”.

bertako  
igogailuak | ascensores  
KORRIKAN ERE

EUSKARA,  
GURE HELBURU  
PARTEKATUA

GIPUZKOA 943 903 450 ARABA 945 712 822 BIZKAIA 946 523 935 NAFARROA 848 870 917



bertako.eus

duin grabatzea, ez gure mugikorretako txatarrerian. Eta egin ere egin genuen: disko bat grabatu genuen, Youtube-n jarri, eta listo! Ez diogu zabalpenari bes-terik eskaini, guretzat ez zelako inpor-tantea.

### Nola asmatzen duzu zure baitako zati horiek guztiak josten?

Oso inportantea iruditzen zait autozain-tza eta elkarzaintza erdigunean jartzea, eta konektatzen ez ezik deskonektatzen ere jakitea. Denborarik ez da existitzen, bata egiteko hartzen duzun denbora, bestea egiteko bazterrean uzten duzu. Bizitza simplea da, geuk konplikatzen dugu. Hortaz, bizigarriak zaizkidan ere-mu, ekintza eta inguruak –pertsonek, sozialak, nahiz naturakoak– uztartzea, eta oreka bilatzea. Topera nabilela ikus-ten dudanean, freno jartzen diot neure buruari: “Gustura parte hartuko nuke zuen asmoan, baina ez nago saltsa gehia-gotan sartzeko moduan. Gainezka nabil, ez daukat neure burua beste ezertan konprometitzetik”.

### Ezetz esaten ikasi duzula, alegia.

36 urte ditut, eta ikasi dut neure burua onartzen, ikasi dut ez dela ezer gerta-tzen egin nahi dudana gauza bat momentu jakin horretan garatu ezin badut, bihar ere argituko duela egunak, munduak jira-biraka jarraituko duela, eta, mundua-rekin batera, guk ere bai. Ez dago gaur ezintasun batean korapilatu beharrik, jakinda bihar korapilo hori berori aukera izan litekeela, heldu ahalko diogula, aurrera egingo dugula. Ez diot horri batere beldurrik, eta ingurukoei ere mezu hori helaraztea gustatzen zait, nik ikasteko 35 urte –zoritarrez–, behar izan dudana hori, ez dezaten besteek hainbeste den-bora behar: “Trankil, dena ezin da. Bizitza erabakiak hartzea da, aukeratzea”. Argaz-

## Azken hitza

# SARETZE ETA AHALDUNTZEA

“Munduko kulturak Aiaral-dean proiektuan, hona iritsi-tako emakume perutar batek behin esan zidan, hunkitu-ta bizi zuela gure proiektua, lehenbiziko aldiz sentitu zelako entzuna, eta aitortua. Kultur-talka hori, ezta? Guri ez dagokigu inor epaitua sentiaraztea, haren hitza balioan jartzea baizik, haren saretze eta ahalduntzeari laguntzea”.

kilariaren kasuan bezala, irudian elemen-tu bat harrapatu ahal izateko, besteren batzuk kanpoan utzi behar izaten ditu.

### Euskaraz bizi zara eremu erdaldunean...

Euskaldun jaio nintzen eta euskaraz bizi naiz eremu erdaldunean. Posible da. Euskaraz bizitzea hautu bat da, eskubidea da, bizigarria bezain egingarria. Ez dut baldin-tzarik jartzen. Pertsona eta identitatea bat dira nire barruan, ni euskaraz bizitzeak ez du esan nahi beste hizkuntzei eta kulturei ateak ixtea. Ez diet aterik ixten. Besozabal eta belarrizabal hartuko ditut. Euskaraz jaio, hezi eta bizi naiz, eta nirekin harre-manetan diren gehienek badakite nire komunikazio hizkuntza euskara dela, bizi-ikuspegia ere euskaratik garatzen dudala, hautu kontziente horixe eginda.

### Migratzaileekin ere gogotik ari zarete lanean.

Feminismotik, Bor-bor elkartetik, etorri berrieekin lanean ari gara. Oso berezia da abiapuntu neutrora hurbiltzeko saia-

kerak. Nire kasuan, gaztelania ez menpe-ratzeak euskara bezain ondo, laguntzen dit ulertzen zer egoera bizi duten herri honetan etorri berri askok. Hizkuntz ko-deak diferenteak ditugu, kultur kodeak ezberdinak, bizimodu, ohitura eta aisial-diak ere gureak ez bezalakoak. Noizbait asmatu beharko dugu, bada, elkarbizitza hori behar bezala garatzen, ala? Esate baterako, Bizi hiztegi soziala egin genuen, feminismotik abiatuta. Oso aber-rasgarria izan zitzaidan.

### Bizi hiztegi soziala?

Bai, etorri berriei galdetu genien es-kualdean, edo edozein tokitan, bizitzeko zein esaldi-edo behar zituzten –esaldi inportanteak-edo, alegia–, eta zortzi hiz-kuntzatan plazaratu genuen horietako bakoitza: “Kaixo, ni halako naiz”, edo “La-guntza behar duzu? Lagun zaitzaket?”, “Non dago tren geltokia?”... Arropak, osasunari lotutako esamoldeak, aditz bat-zuk... Horiek ziren guri bururatzen zaiz-kigunak. Etorri berriei egindako parte hartze prozesuetan, berriz, bestelakoak sortzen ziren: “Non dago kontsulatua?”, adibidez, edo etxe-tresnen izenak. Guri sekula ez zitzaigukeen bururatuko kon-tsulatua non dagoen jakitea oinarritzko beharrezana dutela etorri berri askok. Epaitegia, beharbada. Baina kontsulatua?

### Pentsatu ere ez guk, seguru.

Horrek erakusten digu zer urrun gauden batzuk besteengandik. Batez ere, geu gaude urrun, geu gara lanketa hori egin behar dugunok, desboteretze ariketa hori. Geu gara inklusio hori bilatu behar dugunok. Erraz esaten dugu: “Ni herri honetako aniztasunaren alde nago, ez naiz batere arrazista!”. Eta hori esanda, besterik egiten dugu kausa horren alde? Ezer ez? Seguru ez gara arrazista? Se-guru klasizista ez gara? ●

## EuskarAbentura

### espedizioa

2025



**HAUTAGAITZA AURKEZTEKO**

„honakoa aurkeztu behar duzu:  
**PROIEKTU BAT +  
 AURKEZPEN BIDEOA**  
 Informazio gehiago:







[www.euskarabentura.eus](https://www.euskarabentura.eus)  
[@euskarabentura](https://www.instagram.com/euskarabentura2025) #euskarabentura2025  
[izenematea@euskarabentura.eus](https://www.youtube.com/channel/UCzema7eaaEuskarabentura.eus)

2008, 2009 eta 2010\*  
 urteetan jaiotako gazteentzat!  
 \*aukera hau bakarrik Lapurdi, Baxe-nafarroa,  
 Zuberoa eta diasporako gazteentzako

Izena emateko azken eguna:  
**2025eko martxoak 5**  
 Hautatuen zerrendaren  
 argitalpena: **2025eko apirilak 22**

**Batasun**

bbke, Buzkaila, Bilbo, Kaitu, YASASINING

**Laguntzaileak**

EUJEA, EUSKAL ZERBITZUAK, GEU, UN ITAIA, EUSKAL KULTURAREN ERAGILEAK, EUSKAL KULTURAREN ERAGILEAK, EUSKAL KULTURAREN ERAGILEAK, EUSKAL KULTURAREN ERAGILEAK

**Honoretak**

berria, eitb, ARGIA, TOKOM, naiz, BARRIO, EUSKAL KULTURAREN ERAGILEAK, EUSKAL KULTURAREN ERAGILEAK, EUSKAL KULTURAREN ERAGILEAK



## Borroka aro berria Herrialde Katalanetan



JESÚS RODRÍGUEZ  
DIRECTA-KO KAZETARIA

**2**011. urtean M-15eko mugimendu indartsua lehertu zen, Kataluniako Gobernua ataka estuan jarri zuena. Besteak beste, orduko hartan Polizia Bartzelonako Katalunia plazako kanpaldi suminduari oldartu zitzaion, eta parlamentua setiatu zuten ekintzaileek, Artur Mas presidentearen aurrekontu-murrizketak onartu behar ziren egunean. Handik gutxira, suminduen artean zeuden ezkertiarren zati batek jauzi egin zuen erakundeetara, plazetan lortu ez zena bulegoetan egikaritu nahian. Ez zuten lortu zerua asaltatzerik –Pablo Iglesias *dixit*–, nahiz eta katakonbeteatik esnarazi zituzten lozorroan zeuden botere faktikoak, frankismo soziologikotik oligopolioetako eliteetaraino, euren pribilegioak mehatxatuta ikusi baitzituzten. Hortik aurrera estatuaren estoldek dena korapilatu zuten.

Hurrengo urtean jauzia egin zuen Kataluniako mugimendu independentistak, dena eraldatzeko borondatearekin eta desobedienciazko prest. Jende askok ez zuten sinetsi hasieran, aurreiritziengatik, uste baitzuten konbergenteek konbergenteena egiten dakitela soilik, eta balazta sakatuko zutela estatuari aurre egin baino lehen. Baina herri autoantolatua-ren faktorea erabakigarria izan zen bai ala bai erreferendumera iristeko eta hura gorputzekin defendatzeko, nahiz eta bide orririk gabe egin, eta “*A por ellos*” [Haiek txikitzer] leloa martxan jarri zuen fiskaltzaren eta botere judizialaren aurrean erreakzionatzeko gaitasunik gabe.

Iraganeko borroken  
errautsetatik eta  
erakundeen izen ona  
zikintzetik irteten ari  
dira iristear dagoen  
zera berri horren lehen  
txinpartak

*Statu quo*-aren aurkako bi errebolta horiek lehertu eta hamabost urtera, argi dago erakundeetatik errebolta horiek gidatu zituzten gehienak posizio pragmatikora itzuli direla, norberaren eta alderdien biziraupenera –jazarpena, espetxea eta erbestea pairatu ondoren–. Junts-en azaleratu dira negozioren sektoreko koadroak eta nabarmendu dira Sílvia Orriols-en muturreko eskuin etnizistarekin lehian ari diren tokiko liderrak. ERCn Oriol Junqueras-ek Generalitateko presidentetza hartu nahiko luke egunen batean, eta anbizio horrek atea irekitzen dio barneko aurkariak suntsitzeko bere esku dagoen edozein metodo erabiltzeari. PSC-PSOEren ezkerrean ere heldu da eztanda, Podemos zartatuta *kenketa* dakarren Sumarrekin.

Botere instituzionalaren kuotak banatzeko gerrak boto-emailearen zati bat abstentziora bidali du.

Bien bitartean, urriaren 1ean politizatu ziren gazte belaunaldiek dena eman zuten 2019ko Urquinaona Plazako Batailan eta pandemiak behartutako etenaldian pilak kargatu zituzten, erreferente berriak eta borrokatzeko kausa berriak bilatu eta aurkituta. Sare sozialetako kritika errazaz nekatuta, injustizien aurkako errebolta lema hartu nahi dute berriro. Agian ez dute planteatzen iraultza handi bat, baina hainbat elementu nuklear seinalatzen dituzte. Elementu horiekin azaltzen dute zergatik ez dituen zoriontsu egiten bizitzea egokitu zaien munduak. Abiapuntuetako bat da alokairua ez izatea jasotzen dituzten soldata miserableen %60, eta joan den azaroaren 23ko manifestazio jendetsuak hala erakusten du. Uko egiten diote eurak esplotatzen dituzten enpresentzat ordu askoz lan egiteari, gerra eta hondamendi klimatiko gehiagora bidean doan munduaren ziurgabetasun erantsiarekin. Eta bonusa herrialdearen hegoaldeko iritsiko da. Valentziako gizarteak bere burua antolatu du eta oraindik shock egoeran dago, L'Horta Sur eta Ribera Altako uholde tragikoen kudeaketa politiko burugabea dela eta. Beste bultzada bat, boteretsuen aurrean ez uzartzeko. Iraganeko borroken errautsetatik eta erakundeen izen ona zikintzetik irteten ari dira iristear dagoen zera berri horren lehen txinpartak. ●

# Jendetasun zolatik, Kittof gogoan




KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE  
LITERATUR ZALEA

**K** aosean sartuak gara. Hori erran digute hedabide frantsesek, legebiltzarrak gobernua erorazazi duelarik abenduaren 4an. Kaos politiko, instituzional, sozial, ekonomikoaren zirimolak infernuko sarabandan bahituko gaituelako izua zainetara isurtzen hasia zaigu denoi. Zer komedian jokatu beharko dugun! Zer koreografia miserablean!

*Zoin dira dantza horiek  
Kadentzian daramazkigunak?  
Mintzatu aitzin ere  
Prestatzen dut ene burua bortizkerien  
gehiegikeriendako*

Beste gisarako dantza du aipagai ahapaldi horrek: Beskoitzeko Biarritzenia etxeko egoiliarrek 2019an ondu disko batetik hartua da. Biarritzenian dauden jendeak ahalmen biziki urrikoak dira, desgaitasun larriz sufritzen dute. Bizitzaren dantzan ez dezakete normalitatean dihardutenekin parte hartu. Baina izan da jende horren baitako sorkuntza gaitasunean sinesten duen zororik, hitzen bidez neurria jarraitzen laguntzen dituenik. Kittof Prud'homme, Ipar Euskal Herrian, horrelako zorakerian ibili den artista, hogeituzte.

Gaztetan, Kittofek antzerkigintza, musika eta argazkigintza ikasi zituen. Haren ingurumen burgesetik ihes egin nahiz, ideia anarkistak gogoan eta Baionako Patxa mugimenduak erakarririk, jin zen hona. Euskara ikasi eta militante abertzale suhar gisa ekin zuen.



DOM CAMPISTRON

Bere hoberena, haatik, ondotik eman zuen. Parisen bi urtez segiturik goi-mailako ikasketak autismoaren alorrean, erabaki zuen osoki dedikatzea nahasmentu mentalaz pairatzen zuen jendeari, horien kultura eskubideak biziara. Heletan Traouboules elkarteak sortu zuen eta, horren barruan, *Poteo Atipikoa* deitu festibala. Hori zen antzerki festibala, ahalmen urriko jendeak soilik eskainia. Izugarriko arrakasta izan zuen ekitaldiak, eta zonbait urtez antolatatu zen.

Azken hamar urteetan, Sur un Fil elkartearekin, Kittof ibili zen hainbat eta hainbat sorkuntza proiektu eramaten jendarteak baztertu presunekin: ospitaleko eriekin, autista heldu eta haurrekin, ijito haurrekin, Baionako etorkin

auzoko familiekin, zahar etxeetako bizitzaileekin, familiengandik urrunduak diren gazteen egoitza berezietuekin, burasorik gabe etorritako adin ttipiko migratzaileekin. Haren jite eta jakitate zorrotzei esker, bihotz urragarri gertatu ziren antzerki, erakusketa, disko eta olerki bilduma eginarazi dizkie, Jules Ferran adiskidearekin.

Adin handiko jendeari, ez zion galdegiten haurtzaroko oroitzapenak kontatzea, baina nehoiz nehoi erran ez zuena adieraztea, muga moral guztiak gaindituta. Xaharrek eskertzen zuten horrendako, ez zituelako xahartzat hartzen, baizik eta mundu honetan oraino zerbait erratekoa daukaten presunatzat. Horrela entzun eta irakurri izan ditu, publiko "tipikoak", 90 urtekoek diotena sexuaz, maitasunaz, denboraren iragankortasunaz, bizitzaren edertasunaz, heriotzaren beldurrak eragiten duen biluztasun intimotik.

*"Nahi nizuke erran orainaldian erran izan nahiko nizukeena... / Baina, garaiz gabiltza ote? Ene entzutea prest zara ote? / [...] Entzuten duzu urteen zolatik heldu den hizkuntza honen soinua/ Ene adin, ene desio, ene memoria zolatik?"*

Uste dut Kittof Prud'homme bakarra zela, Ipar Euskal Herrian, pasio handiz publiko "atipikoarekin" sorkuntzan aritzeko, azken urteetan. Urriaren 24an zendu da, 54 urtetan. Ea kaos orokorraren garaian Kittof bezalako humanista kuraiosak agertuko garen, eta gai izanen garen elkartasunez aurre egiteko halabeharrari, sorkuntzaren alor askeak gozatuz "tipiko" zein "atipikoen" artean, jendetasun soilez. ●

## Hitzen poetika



IÑIGO MARTINEZ PEÑA  
FILOSOFOA

**E**kintzailtza modan dago. Kontzeptuak indarra hartu du eta hiztegi ekonomikotik askoz harago zabaldu da. *Just do it*: egizu, besterik gabe. Baina ez dezagun ahaztu: propagandaren mundutik dator leloa. Erosle-ekintzaile aktiboak izatea ote da hitzaren mozerroa? Egungo enpresariak ere gustura definitzen dute haien burua ekintzaile gisa. Agian aurreiritzi gutxiagoko terminoa ematen duelako? Badirudi klase sozialetatik kanpo dagoela... Baina Elon Musk eta Mark Zuckerberg saltzen dira, adibidez, egungo munduko ekintzaile ideal gisa. Haien inguruan biografia liluragarri eta ia-ia mitologiko bat sortu da: horra hor pertsona “auto-eraikiak” eta borobilak! “Guk ere, ekin eta ekin, geure burua zerotik sortu dugu, beste edozeinen moduan. Hori bai, beste batzuk baino arrakastatsiagoak izan gara...”.

Kontuak kontu, negozio- eta enpresa-ekimenetatik eguneroko bizitzaren edozein esparrutara zabaldu da “ekintzailtza”. Ekintzaile arrakastatsuek izan behar dugu, oro har; oportetan, sexuan, sukaldean. Baina hitz “neutrala” al da? Izan ere, hitzak diskurtso ideologiko baten gainean eraikita daude eta, jakin badakigu, erabilitako hitzek errealitatea egituratzen dutela... Zer egin, orduan, hitz horrekin? Guk ere horren gaineko “ekintzaile kritikoak” izan behar dugu?

Batetik, erabiltzeari uko egin diezaiokegu, hitza arbuiatu, ahoskatzeari utzi. Hori ez dago gure eremu semantikoaren barruan, eta kito! Bestetik, egungo diskurtsoetan hain sartuta dagoenez, hainbeste aldiz entzungo dugunez, terminoa bera zalantzan jartzea edota hitzari zentzu berriak bilatzea izan daiteke beste aukera. Eta, bigarren aukera hori hartuta, bitxikeria batez ohartu nintzen aurrekoan: *poesia* hitzak (grezierazko *poiesis*) *ekintza* esan nahi du. Benetako ekintzailtza, orduan, poesia egitea balitz? Ekintzailtza litzateke hitzen poetika bilatzea, hitzen zaporea eta gustua dastatzea, hitzen soinua eta dardara sentitzea, haien esanahia irekitzea eta esanahi berriak iradokitzea. Ez al da hori ekintza ederra?

Agian hitzak, poesiari gabe, harri bihurtu eta gogortu egiten dira; oskola ateratzen zaie. Joseba Sarrionandiak *Hitzen ondoeza* hiztegi berezian aipatu bezala: *piztu ez bazaizu, hitz hori bota eta saiatu beste bat pizten*. Hitz egitea, beraz, zerbait egitea ere bada. J. L. Austin hizkuntzalariak hitzaren gaitasun ekintzaile hori hartu zuen aintzat, aspaldi. Eta, euskaraz, aditzak berak abisatzen digu: *hitz egitea* zeozer egitea da. Hitz egitea eta elkarri entzutea? Azken finean, arrakasta ekonomiko indibidualetik harago, ekintzaile izateko askotariko moduak egon daitezke. Bada besterik. ●

## Alerta laranja



ARANTZA GUTIÉRREZ  
EHU-KO IRAKASLEA

**V**alentziako tanta hotzaren kudeaketa txarrak aldaketa ekarri du muturreko eguraldiagatik izan daitezkeen alerten inguruan, “neguko” lehenengo denboraldian agerian geratzen bezala. Hego Euskal Herrian ibaiek gainezka egingo zutelako mehatxuaren aurrean, hainbat bidetatik heldu ziren babesteko oharrak, administrazio batek ere ez baitzuen arduragabe agertu nahi. Eta horren aurrean, batek baino gehiagok pentsatu zuen etxea babestokirik onena –eta beroena– zela.

Tamalez, badira kanpin denda etxe dutenak. Babesleku eskasa, oihaleko aterpea. Ehunka dira kale gorrian, ba-

soetan, bizitzera behartuta dauden gazte migratzaileak. Haiengana ere helduko ziren oharrak, baina ez zuten nora joan. Bitartean, neguko aterpe batzuk itxita zeuden, eta ireki ziren horietan ia ez zegoen oherik beharrei erantzuteko.

Beste behin, herritarren elkartasunari esker batu ziren mantak, ireki ziren lokalak eta eskaini ziren edari eta janari beroak. Berriz, administrazioek, komunikabide konplizeen bidez, benetako harrera-politikak ezarri ordez, kutxu arrazista duten beste alarma batzuk pizten dituzte, segurtasunean gero eta gehiago inbertitzea justifikatzen dutenak. ●

# Kilometro zero



**ENEKO GORRI GANTIER**  
EUSKARA TEKNIKARIA

**B**erriki Pierre Carles dokumental egile engaiatuaren azken lana ikusteko aukera izan dut. *Guérilla des FARC, l'avenir a une histoire* (FARC gerrilla, etorkizunak historia du) du izena eta Kolonbian mende erdi baino gehiago iraun duen gatazka armatuaren kontakizun berri bat proposatzen du. Bere lanak hedabide nagusiek garraiatu duten iruditegi bati kontrapisua egitea du xede. “Narkoterrorismoa”, “bahiketa”, “haur esplotazioa” eta beste hamaika sarraski leporatu zaizkio FARC-EP erakundeari. Hark, milaka pertsona armak hartzera eraman duen testuinguru soziala, ekonomikoa eta politikoa aurkezteaz gain, beren idealak baztertu gabe klandestinitatetik bizi publikora jauzia egin duten gerrillarien lekukotasunak biltzen ditu.

Igande euritsu hartan mukuruz betetako zine gelan, ordubeteko solasaldia sortu zen ikusle eta zinegilearen artean. Hainbat gai jorratu ziren. Noski, paralelo pertinentiak egin ziren Palestinako egoerarekin. Baina hitzik ez Euskal Herrian izandako gatazkari buruz. Baiona ingurutik etorritako hainbat belaunalditako jende engaiatu andana bildu ginen

Gatazka politikoari, zenbat eta hexagonotik urrunago izan, orduan eta begirada adeitsu eta erromantikoagoarekin begiratuko diote ezkertiar militante askok

egun hartan. Baina *askapen mugimendua*, *borroka armatua* eta *bake prozesua* hizpide genituela, erreferentzia lauso batzuk aparte, Europa mendebaldeko lur zati txiki honetan bizi izandakoari buruz hitzik ez.

Internazionalista gisa, atzerrian gertatzen dena begiratzerakoan saiatzten naiz betaurreko etnozentrismak kentzen. Munduko txoko askotan jende soberak injustizia, errepresioa eta zapalkuntza hezur muineraino bizi ditu, lekuz kan-

poko konparaketetan ez sartzeko. Baina gai hau espazio honetara ekarri nahi izan dut, Frantziako ezkerren barruan den tendentzia baten erakusle baitzait.

Haiekin, askapen borrokek eta patatek alderantziko fenomenoak jasaten dute. Patatak (eta elikagaiak oro har) geroz eta hurbilagotik etorri, geroz eta baloratuagoak izango dira. Hobeak, ez. Baina tokikotasun horrek xarma berezia emanen diote. Ba, gatazka politikoarekin alderantziz: zenbat eta hexagonotik urrunago izan, orduan eta begirada adeitsu eta erromantikoagoarekin begiratuko diote ezkertiar militante askok. Eta Euskal Herrian edo Katalunian gertatzen denak benetako arbuioa sortuko die. Gogoan ditut, Bordelen bizi nintzelarik, hango militanteekin izandako amaigabeko elkarrizketak. Biziki erraz zen Chiapas, Txetxenia, Bolibia edo Palestinari buruz hitz egitea, eta ezinezkoa Euskal Herriko borroka mahai gainean pausatzea. Tamalez, alde horretarik gauzak ez dira asko aldatu. Sozialki hain hurbil dugun jendea kulturalki hain urrun ikusteak erranarazten dit badugula oraindik lana ideien bataila irabazteko. ●



AI, GURE JUANETEAK  
Patxo Telleria

EZ-IZAN  
Jon K. Sanchez



# 2025 Ilargia eta landareak

URTEKO LANEN AGENDA

Jakoba Errekondo eta  
Antton Olariaga



Prezioa **15€**

Bidalketa gastuak **5€**.  
Bidalketa doan **40€**-tik  
gorako erosketetan.

[azoka.argia.eus](http://azoka.argia.eus) (+34) 943 37 15 45



Lantokirako erosoia eta atsegina



Ikastetxerako material hezitzailea



Baratzean eta orokorrean landareekin egitekoak ilargiaren arabera



Sasoiko eta bertako erosketa antolatzeko

## SARE SOZIALAK

# X utzita, nora joko dugu orain?

“eXodoa” gertatzen ari da egunotan sare sozialetan. Erabiltzaile ugari X plataforma uztea erabaki –Elon Musk enpresariaren eskutik izandako eboluzio “toxikoaz” kokoteraino– eta Mastodon edota Bluesky-ra egin dute jauzi. Proiektu horiei begira jarri gara erreportajea, jatorri, izaera eta finantzaketaren inguruko elkarren arteko desberdintasunak nabarmenduta, besteak beste.

 ASIER ITURRALDE / JON TORNER ZABALA

**E**z dakigu Elon Musk handi-mandiari askorik axola dion jende andanak X sare sozialetik (lehengo Twitter) ihes egin eta beste plataforma batzuetan aterpe hartzeak. Ez dakigu berarentzat jostailu hutsa ote den, erreparorik gabe sakrifika daitekeena, ala proiektu estrategikotzat duen. Litekeena da AEBetako hauteskundeetan Donald Trump babestu duelako bizkarra eman dioten erabiltzaileen amorrualdiak grazia egitea, are gehiago ikusi ostean babes hori emateagatik ere, edo horri esker, diru-sarrerak izugarri handitu zaizkiola denbora gutxian.



Bluesky eta Mastodon. Agian irudituko zaigu, behin X alboratuta, berdintsua dela batera edo bestera joatea, bietan dagoelako atmosfera sanoagoa, baina parez pare jarrita konturatuko gara desberdintasun nabarmenak daudela haien artean.

Erabiltzaile ugari X-tik ihes egin du, ordea. Eta joan dira Mastodon edota Bluesky plataformetara. Deitu diote “eXodoa”. Bat-bateko haserrealdiak bultzatuta hartuko zuen erabakia hainbatek, denbora luzeagoan hausnartu eta eztabaidatu ostean besteek. Gure sektorean ere, bateko eta beste-ko hedabideek iragarri dute hura utzi dutela –jakitun izan arren irakurleen parte bat hantxe topatuko zutela–, sanoagoak diren lekuetan ostatu hartzeko.

EFJ Europako Kazetarien Federazioak berak oharra plazaratu du: 2025eko urtarrilaren 20an –egun horretan hartuko du AEBetako presidente kargua Donald Trumpek– utzi

egingo dio X plataforman edukia publikatzeari. “Ezin dugu haren jabeak desinformazio eta propagandarako makina bihurtu duen sare sozialean parte hartzen jarraitu”, adierazi du 44 herrialdeetako 295.000 kazetari ordezkatzan dituen elkarteak.

ARGIA ere eztabaida prozesu batean gaude, ez soilik X, Mastodon edota Bluesky egitasmoen gainean, baizik eta, oro har, sare sozial guztietan eta komunikaziorako bestelako aplikazioetan jarraitu beharreko estrategiaren inguruan, argi izanda geure tresnak indartzea izan behar duela bidea, teknologia burujabetza helburu. Aurki emango du lantaldeak horren guztia- ren gaineko erabakiaren berri.

## **EZ, SARE SOZIALA EZ DA ZEUREA**

“Sare sozial hau nirea da eta nire sare sozialean nahi dudana publikatuko dut, eta ez zeuri ikustea gustatuko litzaizukeena”, irakurri diogu Beatriz Rico aktore espainiarrari X-n. Ziurrenik, bertan gabiltzan erabiltzaileetako askok pentsatuko genuen gauza bera, sare soziala “geurea” dela, alegia. Baina ez, Elon Musk-ek argi laga digu bera dela plataforma horretan erregistratutako kontu guztien jabea. *Infowars* ultraeskuineko agerkari digitalari zor diogu, zeharka bada ere, begiak ireki izana.

AEBetako hedabide horrek, 2012an publikatu zuen Sandy Hook-eko eskolako triskantza –gizon batek 27 lagun hil zituen, eta bere buruaz beste egin zuen

gero- muntaia zela. Lehenago ere argitaratuak zituen albiste faltsuak; beste kasu batzuetan ez bezala, ordea, egindakoak izan zuen ondorioz oraingoan. Hildakoen senideek epaitegira eraman zuten agerkariaren jabe Alex Jones, eta 1.500 milioi dolar ordaintzera kondenatu zuten. Hark, baina, ez zeukan isuna ordaintzeko nahikoa diru, eta Infowars salgai jarri behar izan zuen, sare sozialetako kontuak tartean. Agerkaria enkantean atera da eta nork eta *The Onion* agerkari satiriko ezkeriarrek egin du eskaintzarik handiena, *Infowars*-en ildoari ukitu are surrealistagoa emateko-edo.

Kontua da, Joxe Rojasek azaldu duen moduan Teknopata.eus webgunean plazaratutako artikuluan (*Mitologia berria: "Nire X-ko kontua"*), salerosketaren xehetasunak itxi bitartean, X Corp-ek, behinola Twitter gisa ezagutu genuen sarearen jabeak, errekurtsioa jarri duela prozesuaren aurka, zergatik eta "X-ko kontuen jabetza ez delako erabiltzailena, X-rena baizik". Elon Musk-en enpresak dioenez, bera da *Infowars*-en X

kontuaren jabea, eta ez *Infowars* bera. Alegia, erabiltzaileok baimena dugu geure izena daraman kontua erabiltzeko, baina egiaz X-rena da. Zeure izen eta irudia izateak ez du esan nahi zeurea denik, ez, zerbitzua ematen dizun enpresarena da, Instagrameko profilaren edota Youtubeko kanalaren kasuan bezalaxe. Gauzak horretan direla, gainera, ezagutu berri dugu epaile batek geldiarazi egin duela *Infowars* eskualdatzeko prozesua, enkantean jarri eta *The Onion*-ek eskaintzarik handiena egin bitarteko prozesuan "akatsak" izan direlako.

Bestelako martxa daramate X-ren alternatiba bihurtu diren Mastodon eta Bluesky plataformek. Agian irudituko zaigu, behin X alboratuta, berdintsua dela bataren edo bestearen aldeko hautua egitea, bietan dagoelako atmosfera sanoagoa, baina parez pare jarrita konturatuko gara desberdintasun nabarmenak daudela haien artean, proiektu bakoitzaren atzean dagoen jendeari/filosofiari edota finantzaketari dagokionez, besteren artean.

## MASTODON, INBERTSORE HANDIRIK GABE BIDERAGARRI

Eugen Rochko software garatzaile alemaniarrak zortzi urte zeramatzen Twitter erabiltzen, harik eta 2016an hedatu ziren arte Peter Thiel aberats estatubatuarrek sare soziala erosi zuenaren zurrumurruak. Arriskutsua iruditzen zitzaion komunikazio globalerako tresna bat enpresa bakarraren kontrolpean egotea, eta software libreko Mastodon sare sozial deszentralizatua hasi zen garatzen, artean informatikako ikaslea zela.

Ezagutza teknikoak dituen edonork instalatu dezakeenez, 2017rako 1.000 Mastodon komunitate baino gehiago zeuden elkarren artean konektatuta. Horietako asko ohiko sareetan baztertuak eta jazarriak ziren pertsonak sortu zituzten, auto-kudeatutako espazio seguruak eratzea helburu. Lehen erabiltzaile horien dohaintzei esker, proiektuari lanaldi osoa eskaintzea lortu zuen Rochkok. Gainera, hainbat lagunek boluntario gisa laguntzen zioten garapenean.



Ez dago Mastodon bakarra, elkarren artean federatutako/konektatutako milaka komunitate baizik. Horietako bi Mastodon.eus eta Mastodon.jalgi.eus dira, euskara nagusi den arnargune digitalak.



FRANCE 24

Donald Trumpen kanpaina sutuki babestu du Elon Muskek. Izaera bereziko handi-mandi bi, nork berean aginte makila hartuta. Aginte horri, baina, bizkarra eman dio X sarearen erabiltzaile ugari, ingurune "aske eta irekiagoetara" joateko.

2021ean irabazi asmorik gabeko sozietate gisa erregistratu zuen Mastodon proiektua Alemanian, eta urtebete geroago, Elon Muskek Twitter erosi ostean, Silicon Valley-ko arrisku-kapitaleko hainbat enpresak ehunka mila dolarreko inbertsioak eskaini zizkioten. Rochkok, baina, uko egin zion dirutzari, Mastodon irabazi asmorik gabeko proiektua izatea "ukiezina" dela argudiatuta, *Financial Times* egunkarian kontatu zuenez. Proiektuaren independentzia babestu nahi zuen Rochkok: "Mastodonek (eta Fedibertsoak) frogatu dute bizirauteko arrisku-kapitalik behar ez duten komunikazio plataforma eraginkorrak eta fidagarriak direla". Bere hitzetan, inbertsoreek "ez dute negozio jasagarri bat bilatzen, irabazi handiak pilatzea baizik".

Mastodonen erabilera hazi ahala dohaintzek ere gora egin dute, eta azken urteetan software librea bultzatzen duten fundazioen diru-laguntzak jaso dituzte. Une honetan Mastodonek bost langile ditu lanaldi osoan, eta beste bi erdian. Pertsonal gastez gain, manten-

ARGIAN ere eztabaida prozesu betean gaude, argi izanda geure tresnak indartzea izan behar duela bidea, teknologia burujabetza helburu

tzen dituzten zerbitzarien (mastodon. social eta mastodon.online) ostatatzeak hartzen du aurrekontuaren parterik handiena.

#### ASKOTARIKO SAREEN ELKARGUNE

Fedibertsoa, "federazio" eta "unibertsio" hitzen baturatik sortua, webgune multzo bat da, edukiak partekatzen dituztenak modu federatu eta irekian. Webguneok independenteak dira, baina bateko erabiltzaileek bestekoekin zenbait eragiketa burutu ditzakete: ja-

rraitu, mezua bidali, iruzkindu... Fedibertsoan askotariko sareek egiten dute bat; horietakoa da, hain justu, Mastodon plataforma soziala.

Mikroblogintza plaza da Mastodon, baina haren ezaugarriak ez dira ohikoak. Ikuspuntu humanoago batetik sortu da, beste sareen akatsetatik ikasita; "pertsonek zara han, ez produktua", sustatzaileek diotenez. Ez dago ordaindutako iragarkirik eta norberaren datuekin ez da negoziarik egiten. Sare sozial zabalduenak zentralizatuak eta jabedunak dira: Facebook, Instagram, X... Mastodon, aldiz, deszentralizatu eta librea da. Ez dago Mastodon bakarra, elkarren artean federatu/konektatutako milaka komunitate baizik. Horietako bi Mastodon.eus eta Mastodon.jalgi.eus irabazi asmorik gabeko ekimenak dira.

#### EUSKAL KOMUNITATEEK SEI URTE

2018an sortu ziren bi komunitateak. Mastodon.jalgi.eus sortu eta mantentzen du Izarkom telekomunikazio kooperatibak. Mastodon.eus, bestalde, hainbat erakundek eta pertsonak abia-



tu zuten elkarlanean: Azkue Fundazioa, Iametzta, Laborategia.eus, PuntuEUS eta Talaios Koop. Sei urte hauetan Dinahosting-ek doan utzitako zerbitzaria erabili dute, ostatatze enpresa galziarrak PuntuEUS-ekin duen akordioa medio.

Mastodon.eus-en, eguneraketak, zerbitzariaren mantenu teknikoa eta babeskopiak Iametzta enpresak egiten ditu –proiektu sozial bezala–, eta moderazio lana komunitateko kideek, musu-truk, hurbileko sarea izanik lan hori egitea ez baita amesgaiztoa, plataforma komertzial erraldoietan gertatzen den moduan. Bestetik, softwarea euskaratzeaz Librezale taldeko boluntarioak ardurartzen dira.

Azaroaren 21ean sei urte bete zituen Mastodon.eus-ek, eta urteurrena ospatzeko *Gure aukera, sare libre* atxikimendu kanpaina abiatu dute. “Fedibertoak lehenesten ditu gardentasuna, komunitatearen balioa eta erabiltzaileekiko errespetua, sare pribatibo eta zentralizatuek ez bezala”, nabarmendu dute proiektuaren sustatzaileek. Eta gaineratu: “Sare libreak funtsezkoak dira, gure hizkuntza eremu digitalean garatu, hazi eta presentzia duina izateko aukera bermatzen dutelako, kanpoko erabakien zain egon gabe”. Euskara nagusi den arnagune digitalak dira bi komunitateak.

ARGIAko lantaldeak bat egin du atxikimendu kanpainarekin. “Autogestioa oinarri, euskaratik, euskaraz eta libre sortutako komunitateak sustatu eta biderkatu behar dira”, aldarrikatu dugu. 2018ko apirilean sortu genuen lehen kontua Mastodon-en, euskal komuni-

tateak oraindik existitzen ez zirenean. Hilabete batzuk geroago, hainbat eragile euskara eta euskal kulturaren Mastodon komunitatea sortzeko lanari ekin zioten, eta ARGIAk ere hasieratik hartu zuen parte. Geroztik, sare librean alde egiten jarraitu du, “gure kontraesan guztiekin”, lantaldeak azpimarratu duenez.

Emandako urratsen artean, 2023ko irailaren 16an, software askearen nazioarteko egunarekin bat, ARGIAren euskarrietatik (aldizkarian, webgunean, iragarkietan, gehigarrietan, karteletan...) multinazionalen menpeko sare sozialen erreferentzia oro kentzea erabaki zuen lantaldeak.

### **BLUESKY ETA ARRISKU-KAPITALEKO SOZIALAK**

Azken asteetan zeresan handia ematen ari den Bluesky sare soziala beste upeleko sagardoa da. 2019an Twitter deszentralizatzeko ikerketa proiektu bezala hasi zen, haren sortzaileetako bat izan zen Jack Dorsey-ren eskutik. 2021ean, orain enpresaren buru den Jay Graber kontratatu zuten Bluesky zuzentzeko, eta Twitterrek hamahiru milioi dolar jarri zituen garapena abiarazteko. Hilabete gutxira, X-rekiko loturak hautsita, Bluesky enpresa independente bihurtu zuen Graber-ek. Paradisu fiskal batean, Delaware estatuan, du egoitza konpainiak, AEBetako enpresa handi askok bezala.

2023ko ekainean, Blueskyk zortzi milioi dolar jaso zituen Neo inbertsore taldearen eskutik. Eta 2024ko urrian Blockchain Capital arrisku-kapitaleko

## Etxepare Lizeoak sare sozial libreak sortu ditu

Gero eta ohikoagoa da Mastodon edo Pixelfed bezalako sare sozial libre eta federatuetan kontuak izatea. Baionako Etxepare Lizeoak pauso bat harago eman du, ikasle eta irakasleentzat bere komunitate propioak sortuta.

Helburu pedagogikoarekin sortu dituzte, Eder Etxebarria irakaslearen hitzetan, Mastodon bat mikroblogintzarako eta Pixelfed bat argazkientzat. Hasteko, sare sozial alternatiboak ezagutu eta euskaraz erabiltzeko aukera eskaini nahi diete ikasleei. Horrez gain, plaza publiko horien erabilera, antolaketak eta kudeaketaz eztabaidatuko dute, “erabiltzaileen zaintza bermatuko duen sistema demokratikoa” plantan eman nahi dutelako.

Lizeoko bigarren mailako ikasle eta irakasleek soilik sortuko dituzte kontuak, argitalpen guztiek euskaraz izan beharko dute, eta errespetuz eta gizalegez jokatzeko eskatuko zaie.

Independenteak izateak ez du esan nahi mundutik aparte egongo direnik. Esaterako, euskal Fedibertsoko gainerako komunitateetako kideak jarrai ditzakete eta haiekin mezuak trukatu, besteak beste.

konpainiak hamabost milioi inbertitu zituen enpresa horretan. Marta G. Franco hacktibista eta kazetari madrildarrak *El Salto* agerkarian azaldu duenez, Blockchain Capital-en sortzaileetako bik, Bart eta Brad Stephens anaiek, Trumpen kanpainarako dirua bildu zuten, aurki AEBetako presidente kargua hartuko duenak agindu zuelako kriptomoneten merkatua desarautuko duela. Enpresako beste bazkide bat Brock Pierce da, zeinak bitcoin-a El Salvadorren txanpon ofizial bihurtzeko aholkua eman zion Nayib Bukele presidenteari. Netanyahu familiaren laguna da, eta urteetan Steve Bannonekin kolaboratu zuen, Trumpen lehen kanpainako ideologo estrategikoarekin.



MICHAEL WUENSCH / PIXABAY

Bitcoin txanponak, paradisu fiskalak, Blockchain Capital, Brock Pierce enpresaria... Urre kolorekoa da zeru urdina. Disdiratsuegia ez ote den beldur dira erabiltzaile batzuk.

Twitter, Facebook eta enparauek "Go-rrotoaren internazionala" antolatu dutela azaldu zigun Francok berak ARGIAN, Axier Lopezek egindako elkarrizketan. "Taktikak, baliabideak eta diru asko partekatzen dituzten gizon batzuk dira. Zertarako? Bannonek horrela laburbildu zuen estrategia batean inbertitzeko: 'Espazio osoa kakaz betetzea'. Hau da, eduki toxiko askorekin espazio digitala okupatzea, lehen hein batean jendeak elkarrizketa garrantzitsuak izateko, elkar ezagutzeko, politikoki antolatzeko edo, besterik gabe, dibertitzeko balio zuen espazioa okupatzea, alegia".

### "KAKAZTEA"

Bluesky sare sozialak inbertsio handiak jaso ditu, baina ez dago batere argi nola sortuko dituen inbertsoreei banatzeko irabaziaz. Plataforman kriptotxanponik ez dutela integratuko eta iragarkirik ez dela bistaratuko hitz eman dute. Aitzitik, orain arteko diru-sarrera bakarra domeinu pertsonalizatuak saltzea zen, hau da, ordaintzen dutenek @erabiltzailea.bsky.social izena izan ordez, edozein domeinu erabili ahal izatea, esaterako, @erabiltzailea.adibidea.eus. Nobedade moduan, iragarri dute harpidetza-eredu bat garatzen ari direla, amu gisa eskainita kalitate handiko bideoak ikusi edo profileko kolore eta abararren ertzak pertsonalizatzeko aukera.

Zaila da, ordea, horrekin bakarrik enpresaren jardunari eutsi eta inbertsoreek eskatuko dituzten irabaziaz sortzea. Cory

Doctorow kazetari, egile eskubide librean aldeko ekintzaile eta zientzia fikziozko idazleak "kakaztea" bezala definitutako prozesuan sartu direla dirudi. Alegia, lehenik inbertsoreek jarritako diruarekin produktu erakargarri bat garatzen dute, ahalik eta erabiltzaile gehien pilatzeko. Ondoren, produktua bezero komertzialentzat bihurtzen dute erakargarri, erabiltzaileen kaltetan, iragarkiak sartuta, adibidez. Eta, azkenik, jabeentzako irabaziaz bilatzen amaitzen dute, erabiltzaileen eta bezero komertzialen kaltetan. Edo ultra-aberats baten jostailu bilakatzen dira, Twitter bezala.

"Denbora batez sare sozial komertzial horiek baliagarriak izan zitzaizkigun, baina egunetik egunera gero eta gutxiago", uste du Marta Francok. "Horregatik, hortik irteteari buruz pentsatu behar dugu, gero eta lehiakorragoak diren espazio horietan zokoan geratzen ari garelako. Oso arreta txikia eskuratzeko, guk baino baliabide gehiago eta eskrupulu gutxiago dituzten erraldoi teknologikoekin ari gara lehiatzen". Internetek, bere arazo guztiekin, inoiz asmatu den komunikazio-tresnarik globalena, unibertsalena eta demokratiakoena izaten jarraitzen duela dio. "Sare sozialak luzaroan erabilgarriak izan dira, eta oraindik ere balio digute; gertatzen dena da lekua galtzen ari garela". Plaza batzuetan geroz eta leku gutxiago dugu geure kontuetarako, eta erabiltzaile geroz eta gehiago dira kontziente horretaz. Al-daketarako oinarriak badira. ●

## Nazien taberna ez bihurtzeko babes-neurriak

Mastodon.jalgi.eus eta Mastodon.eus-ek argi adierazi dute ez dituztela onartzen pertsonen aurkako jazarpena eta eduki arrazistak, sexistak, xenofoboak, transfoboak... Bluesky-ren gidalerroetan ere irakur daiteke haien helburua "espazio seguru eta lagunkoia" sortzea dela, "non erabiltzaileak babestuta sentituko diren eta parte hartzeaz gozatuko duten".

Hala ere, "zeru urdinean" erraz aurki daitezke gidalerro horiek urratzen dituzten kontuak: heriotza mehatxuak egiten ari dira, frankismoaren eta nazismoaren apologia, eta mota guztietako gorroto diskurtsoak zabaltzen. Eguna igarota ere Bluesky-k ez du neurririk hartzen, eta erabiltzaileen esku geratzen da beren burua babesteko mezu horiek blokeatzea.

Mastodon.eus-eko Admin kontutik aldiz adierazi dute ez dutela "faxistarik" onartuko, eta komunitatea babesteko neurriak hartzen dituztela: "Kontu horiek kaleratu egingo genituzke Mastodon.eus-etik, edo Fedibertsoko beste instantzia batekoak balira, gure komunitate osoarentzat blokeatu". Inon irakurri dugun bezala, taberna bateko nagusia bazara, eta zurera nazi bat sartzean ez baduzu kanporatzen, denbora kontua da nazien taberna bihurtzea.

# DENBORAREN HARRIZKO GURPILA IRUÑEKO KATEDRALEAN

"*Pictura est laicorum literatura*", utzi zuen Umberto Eco idatzita, *Il nome della rosa* eleberrian. Irudien bidez mintzatzen da herria, hitzez baino maizago. Artearen funtzio narratiboa nabarmena da Erdi Aroko irudietan, egungo begiekin zail gerta daitekeen arren haiek interpretatzea. Iruñeko katedralako klaustroan, garai hartako pentsamoldean denbora eta lana nola uztartzen ziren ikusteko parada ezin hobe dugu, urte berria hastear dugun honetan.

  **JOSU NARBARTE HERNANDEZ**

**B**ere fatxada neoklasikoaren atzean gordeta, bi mila urte baino gehiagoko historiaren lekuko da Iruñeko katedrala. 1950eko hamarkadatik hona, tenpluan zein inguruko eraikinetan egindako indusketa arkeologikoei hainbat garaitako aztarnak azalatu dituzte: Arga gaineko baskoien kokalekua Burdin Aroan, Erromatar Inperioaren garaiko Pompelo hiriaren urbanismo planifikatua, Antzinate Berantiarreko kristautze prozesua eta bisigodoen, arabiarren nahiz frankoen eragin kulturalak Goi Erdi Aroan... Elizaren aztarnarik zaharrenak IX.-X. mendeetakoak dira; baina, 924an, guztiz suntsitu zuten Abd ar-Rahman III Kordobako kalifaren aginduz. XII. mendean berreraiki zuten estilo erromanikoan.

1086. urtean, San Agustinen erregela ezarrita, katedralaren zerbitzua komunitate monastiko baten esku gelditu zen –Leiren edota Iratzen bezalatsu–, eta inguruan bizitokiak jasotzen hasi ziren. Hala, klaustroa XIII. mende bukaeran eta XIV. hasieran jaso zuten, European zabaltzen ari ziren molde gotikoan; harrigarria da Baionako katedralakoarekin duen antza. 1390eko uztailaren 1ean

---

Klaustroko gangetan gora begiratzuz gero, han eta hemen sakabanatuta, landa-gizarte baten eguneroko bizitzaren irudiak topatuko ditu bisitariak, latinez idatzitako hilabeteen izenez apainduta

katedrala bera bertan behera erori zen, eta hura ere estilo gotikoan berreraiki zuten, lan horien emaitza da egungo eraikinaren barrualde osoa.

Katedralako eraikin gehienak kalonjeek soilik ikusteko pentsatuta sortu zituzten. Eta, hain zuzen ere, han daude Erdi Aroko Iruñeko arte-adierazpen interesgarrienetako zenbait, garaiko elite

intelektualentzako gozagarri. Baina orduko mundu-ikuskeren eta bizimoduen berri ere ematen digute.

Adibide ederrenetako bat Julio Caro Baroja etnografoak ikertu zuen, duela ia mende bete: klaustroko gangetan gora begiratzuz gero, han eta hemen sakabanatuta, landa-gizarte baten eguneroko bizitzaren irudiak topatuko ditu bisitariak, latinez idatzitako hilabeteen izenez apainduta. Batetik bestera jauzi eginda, urtebeteko zikloa osatuko du eta, bidaia horretan, ohartuko da XIV. mendeko nafar gizarteak nola ulertzen zuen denbora errealitate zikliko gisa, urtaroen arabera lanek markatutako gurpil baten gisa.

## HAMAIKA HILABETEKO ZIKLOA

Hilabeteen irudi alegorikoak klaustroa inguratzen duten gangetako giltzarrietan ageri dira. Hamaika dira guztira, urtarriletik abendura; ekaina falta da. Gehienak urdin eta urre kolore biziz polikromatuta daude, baina askok higadura handia jasan dute. Bisitariak adi ibili beharko du guztiak aurkitu eta, urrunetik, eszena bakoitzaren xehetasunei behatzeko. ●





## URTARRILA

Bi burudun Jano jainko erro-matarra dago irudikatuta, esku bakoitzean giltza bat duela. Aldi berean aurrera eta atzera begiratzeko gai zela zioten, eta horregatik zuten ate nahiz pasabideen babesletzat. Urtarrila –edo latinez *ianuarius*– harekin identifikatzean, neguko solstizioaren ondoren ziklo zaharraren eta berriaren arteko lotura azpimarratzen da.



Urtarrila (*Mensis Ianuarii*)

## OTSAILA

Jakina da neguko hilabeterik hotz eta zakarrena izan daitekeela otsaila. Agian horregatik, sutondoan eserita zapata kendu eta oina berotzen ari den gizon baten gisara dago irudikatuta. Nekatu itxura du eta arropa pobrez jantzita dago; herritar xumea da zalantzarik gabe.



Otsaila (*Mensis Febroarii*)

## MARTXOA

Hil honetako lan klasiko bat: gizon bat mahastiak kima-tzen. Ardogintza funtsezkoa zen Nafarroako hainbat eskualdetan. Iruñean bertan, Argaren inguruan txakolina ekoizten zen XX. mendearen bigarren erdiraino. Ezkaba mendian badira oraindik mahatsondo zaharren zenbait arrasto.



Martxoa (*Mensis Marci*)

## APIRILA

Udaberriarekin, landare-tza esnatzen da. Gazte bat ikus dezakegu –ez dago argi gizona ala emakumea den–, esku bakoitzean hosto-sorta bat duela. Haren inguruan, berriz, haritz hostoak eta ezkurak. Hiri buruzagiaren inguruko mendi eta oihanak irudika ditzakegu, neguan biluzik eta udaberrian berdetzen.



Apirila (*Mensis Aprilis*)

## MAIATZA

Zaldun bat ageri da arropa dotoreekin. Esku batean lore-sorta darama, bete-betean den udaberriaren lekuko; gogora dezagun zenbait euskalkitan *lorail* ere esaten zaiola maiatzari. Beste eskuan belatza, nobleek hain gogoko zuten ehiza-sasoiaren abiapuntua iragartzen.



Maiatza (*Mensis Madii*)

## UZTAILA

*Uztaren hila* da uztaila, eta horretantxe ari zaigu irudiko gizona: igitaiarekin horitutako garia biltzen. Ogia Erdi Aroko gizartearen oinarritzko jakia zen. Udaldia, beraz, oso sasoi garrantzitsua zen urte osoko janaria segurtatzeko.



Uztaila (*Mensis Julii*)

## AGORRILA

Zereala bildu ondoren, lastoa eta bihia bereizi eta azken horrekin irina egin behar zen. Herritar bat ageri zaigu larrainean, bi zaldi edo behorrekin lera edo are bati tiraka, zereala zanpatu eta alea bereizteko. Iruñea inguruan badira larrainen antzinako kokapena islatzen duten toponimoak, hala nola Las Eras –Estafeta kalearen izen zaharra– edo Larraintxiki.



Agorrila (*Mensis Augusti*)

## IRAILA

Uda bukaerako lanak dira mahastietatik fruitua jasotzea, lako edo tolairetan muztioa erazteza, eta gero kupeletan sartzea, ardoa ontzeko. Horretantxe ari da irudiko pertsona. Lan horiek festa handiekin bukatzen ziren, udazkeneko zikloari ekin aurretik.



Iraila (*Mensis Septembris*)

## URRIA

Zerealgintza-ziklo hasiera markatzen du urriak. Emakume bat ikusten dugu, bi behik tiraka daramaten gondearekin lurrari buelta ematen. Atzetik, beste emakume batek poltsatik alea hartu, eta airean zabaldua ereiten du. Lan horiek erroitik aldatzen zuten paisaiaren forma eta kolorea, egunak laburrago egiten zihoazen bitartean.



Urria (*Mensis Octobris*)

## AZAROA

Andre bat ikus dezakegu, aizkora batez zerria hiltzeko zorian. Azaroaren 11 izaten zen zerria hiltzeko ohiko data: San Martin egunak negu aurretik egin beharreko lanei bukaera ematen zien. Gatz edo gantz artean kontserbatutako zerriek urte osorako proteina eskaintzen zuten. Hala, egun oso bertakotzat ditugun hainbat produktu sortu ziren.



Azaroa (*Mensis Novembris*)

## ABENDUA

Arropa aberatsez jantzitako bikotea dago mahaian, beste pertsona batek jakiak zerbitzatzen dizkiela. Eguberriko oturuntza baten aurrean gaude, egutegi kristauko festa garrantzitsuenetakoa, eta urteburua markatzen zuena. Ziklo baten bukaera eta bestearen hasmenta.



Abendua (*Mensis Decembris*)

# HIZKI PIZTI

Ikas dezagun irakurtzen eta idazten



30€

Bidalketa gastuak 5€.  
Bidalketa doan 40€-tik  
gorako erosketetan.



“ ”

## *Frustrazioa eragin dezake bularra ematearen onurak azpimarratzen dituen diskurtsoak*

Saioa Baleztena eta Nel Santacruz

Askotariko edoskitze ereduak ikusarazten ditu *Todas las lactancias* (Txalaparta) liburuak. Erakundeek bularra ematea gomendatzen dute, baina ez dituzte nahikoa baliabide eskaintzen eskubide hori bermatzeko. Ondorioz, edoskitzea nahi dutenek zein biberioia ematea erabakitzen dutenek informazio eta babes handiagoa eskatzen dute. Saioa Baleztena egilearekin eta Nel Santacruz testigantza eman duenarekin hitz egin dugu.

 JUNE FERNANDEZ

**M**ireia Serrak ez zuen jaso beharrezko osasun-laguntza profesionala bere seme nagusiari titia emateko zailtasunak izan zituenean. Erditze ondoko depresio baten atarian egon zen, ez biberioia erabiltzearen frustrazioagatik, baizik eta prozesu horretan sentitu zuen bakardadeagatik. Bere frustrazioa salaketa publiko kolektibo bihurtu zuen sare sozialen bidez: #Totesleslactanciesmolen (edoskitze guztiak dira zoragarriak) traola kaleratu zuen eta erabiltzaile asko harekin identifikatzen zirela egiaztatu zuen.

Erreakzio biral horren ondorioz, edoskitzearen inguruko askotariko esperientziak ikusaraztea erabaki zuen. Saioa Baleztena euskal kazetariarekin elkarlanean ernaldu zuen *Totes les lactancies molan* obra hibridoa, testigantzak adituen diskurtsoekin eta gomendioekin

uztartzen dituen. Edoskitze-aholkulari da gaur egun Serra, eta indarkeria obstetrikokoan laguntzeko trebatu da Baleztena.

Katalanezko liburua (Ara Llibres) gaztelaniara itzulia argitaratu du Txalapartak. Baleztenak pena zuen jatorrizko bertsioan, trans pertsonen edoskitzei buruzko kapituluak, testigantza bakarra jaso zuelako. Hortaz, Txalapartaren ediziorako bigarren bat bilatu zuen: Nel Santacruz, bere umeari biberioia eman zion aita haurduna. Santacruzeekin batera aurkeztu zuen Baleztenak liburua Bilbo-ko La Sinsorga kultur zentro feministan.

**Kontatuko dizkiguzue zuen edoskitze esperientziak?**

**Saioa Baleztena:** Indarkeria obstetrikoko bizi izan nuen nik erditzean. Kasu horietan ohikoa da edoskitzea ere zailtasunekin hastea, baina niretzat heldulekua izan

zen bortizkeria horretatik osatzeko. Hortaz, edoskitze naturala idealizatu nahi ez dudan arren, oso positiboki nabarmentzen dut nire esperientzia.

**Nel Santacruz:** Ez dut gogoratzen noiz erabaki nuen semeari biberioia emango niola, baina nahiko goiz izan zen. Burugorria izan nintzen nire erabakia errespetatua izan zedin, jakin bainekien presioak jasoko nituela, nire inguruan zein osasun-sisteman.

**Nel, zer iruditu zaizu liburuaren ikuspegia eta horretan parte hartzea?**

**N. Santacruz:** Hazkuntza ereduaren ikuspegi oso polarizatua dugu. Alde batetik, atxikimenduzko hazieraren pakete osoa: haurrarekin ohea partekatzea, edoskitze naturala eta haurra garraiatzea. Beste muturrean, biberioia, umetxoari negar egiten uztea... Badirudi bi tribu horietako

bat aukeratu behar duzula baina, egiari zor, denok garatzen dugu gure eredu propioa. Gainera, esango nuke erantzukizun guztia amaren, haurdunaren edo zaintzaile nagusiaren gain jartzen dela, hazkuntzaren ikuspegi komunitariorik gabe. Horregatik, oso egokia iruditzen zait edoskitze-eredu guztiei buruzko informazioa eskaintzen duen gida bat kalera-ntzea, errua eta autoexijentzia murrizten saiatzen duen ikuspegi batetik. Edoskitze guztiak zoragarriak dira, desioz, plazerez eta lagunduta bizi daitezkeenean.

Bereziki eskertzen dut beste aita trans batekin kapitulu bat partekatzea queer

bizitzi buruzkoa ez den liburu batean. Ez gara oso ikusgarriak, eta osasun-langileek ez dute prestakuntzarik jasotzen; ia zorionekoa sentitzen zara jarrera transforbrik aurkitzen ez baduzu!

**Hormonatzen hasi aurretik geratu zinen haurdun. Mutil trans ikusgaiek ere pairatzen dute titia emateko presioa?**

**S. Baleztena:** Galdera hori egin nion Poli [beste elkarrizketatu transari, bularra eman zuen hark] eta erantzun zuen gizar-teak ez duela espero trans gizon batekin titia ematea.

**N. Santacruz:** Onartu behar dut genero-estereotipoek eragin zidatela, titia ematea inkongruea iruditzen baitzitzaidan proiektatu nahi nuen irudiarekin. Askotariko guraso-erreferenteak behar ditugu, baita emakumeentzat ere, asko ez baitira identifikatzen amaren irudi femenino sakralizatu horrekin.

**Irakurle askorentzat ezezagunak diren kontzeptuak aipatzen dituzue, bizi dutena izendatzen eta ulertzen lagunduko dietenak. Esaterako, "edoskitzeko asaldura".**

**S. Baleztena:** Irakurleen komentario asko jaso ditugu, hain zuzen ere, asaldurari buruz. Hainbat unetan ager daitekeen arbuio-sentimendu sakona da, baina ohikoa da haurdun zaudenean eta seme-alaba nagusiari bularra ematen diozunean, koktel hormonalagatik. Jende askori lotsa ematen dio kontatzeak eta, hala ere, oso ohikoa da. Zer gertatzen zai-zun baldin badakizu, baliabideak eskura ditzakezu eta hobeto kudeatuko duzu.

**Liburuan kritikatzan duzue edoskitze naturala sustatzeko diskurtso instituzionalak talka egiten duela gurasotasun baimen eskasekin.**

**S. Baleztena:** Arazo nagusietako bat da: behin eta berriro entzun behar dugu OMEk (Osasunaren Mundu Erakundeak) amagandiko edoskitze eksklusiboa gomendatzen duela lehenengo sei hilabeteetan, eta bi urtez jarraitzea, edo amak eta haurrak nahi duten bitartean. Aitzitik, ez da gomendio horiek txertatzea ahalbidetzen duen politika publiko koherenterik garatzen. Orduan, lau hilabete baino lehen lanera itzultzeak esan nahi du zure gain hartzen duzula esnea ateratzeko karga, ustez onena den edoskitze mota bermatzeko. Bestalde, biberoia eman duten elkarrizketatu gehienek titia emateko presioa sentitu zuten ospitalean. Horregatik, liburuaren egileok edoskitze naturalaren onurez kontziente bagara ere, ez zaigu bidezkoa iruditzen horietan jartzea azpimarra, frustrazioa eta errua eragin dezakeelako. Nutrizioaren ikuspegitik haratago, aukera onuragarriena da familia bakoitzak bere testuinguruan hobekien ikusten duena.

**Nel, zuk formula-esnea aukeratu zenuen lehenengo aukera gisa. Zer iruditzen zaizu OMEren diskurtsoa?**

**N. Santacruz:** Ebidentzia zientifikotzat aurkeztzen diren gomendioak aldatuz joan dira historian zehar, interes jakin



Mireia Serra eta Saioa Baleztena dira liburuaren egileak.

batzuen arabera. Nutrizio-onura potentzialak kaltetu egiten dira edoskitzea gozagarria ez bada, haurtxoek antsietatea eta estresa hautematen dituztelako. Uste dut formula-esneak titiaren esne-konposizioa nahiko ondo imitatzen duela; ez dut uste aldea bat datorrenik mezu horrek sortzen duen erruarekin. Eskerrak nire semeak gaixotzeko joerarik ez duen; bestela, burutik pasatuko zitzaidakeen titia eman ez izanagatik zela, berekoia izan nintzela. Eta nire kasuan hautu librea izan zen. Pentsa, orduan, zer nolako ondoeza eragin diezaikeen diskurtso horrek titia eman nahi eta ezin izan dutenei. Nire ustez, edoskitze naturalaren aldeko diskurtsoak gurasotasun baimenak zabaltzeko estrategia bat dira, baina gatazkatsua iruditzen zait, hurrengo mezua transmititzen baitu: ez diozu onena eman zure haurrari, ez duzu behar adina sakrifizio egin.

Diskurtso horrek, gainera, ez ditu kontuan hartzen norberaren arrazoi autobiografikoak, hala nola titiekin harreman gatazkatsua (Nel bezalako mutil transen kasuan) edo sexu-abusu esperientziak.

**S. Baleztena:** Liburuan badira ama pare bat titia eman nahi ez zutenak, ez zekiten zergatik. Ahalegintzeko presioa sentitu zuten, eta hori egitean, aurretik jasan dako indarkeria-esperientziak gogoratu zituzten. Kontuan izan behar dugu edoskitzea sexu-ekintza bat dela.

**Nel, biberioia aukeratzeko zure beste arrazoietako bat izan zen erantzunkidetasuna bermatzea, zure semearen beste aita gizon zisa baitzen. Funtzionatu al du?**

**N. Santacruz:** Ez nuen sentitu nahi zaintzaile nagusia izatearen presioa. Esango nuke biberioiak lagundu zuela horrela

“ ”

**Oso egokia iruditzen zait edoskitze-eredu guztiei buruzko informazioa eskaintzen duen gida bat kaleratzea, errua eta autoexijentzia murrizten saiatzen duen ikuspegi batetik**

Nel Santacruz, trans aita

izan ez zedin, baina gero beste gauza batzuk gertatu ziren, eta hazkuntzan bai sumatu nituen rol horiek. Azkenean, banandu egin ginen. Halaber, asko gustatu zitzaidan amamak eta lagunak edoskitzean inplikatzera biberioari esker.

**S. Baleztena:** Gure beste elkarrizketatu batzuek ere nabarmendu dute biberioaren bidez hazkuntza kolektibizatu egin dela. Edonola ere, zalantzarria iruditzen zait titia aitzakia moduan jarzea gizon zisen inplikazio eskasa justifikatzeko. Atxikimendua modu askotan eraiki daiteke; nire bikotekidea gizon zisa da, nire seme txikiari titia ematen jarraitzen dut, eta aitarekin geratzen da lasai bidaiatu behar dudanean.

**Titia emateko ahaleginean larrua utzi duten gurasoak omentzen dituzue egileok liburuan, baina ahalegin horrek osasun mentalean izan dezakeen eraginaz ere ohartarazten duzue...**

**S. Baleztena:** Nik ere galdetu diot nire buruari maiz: nahi dudalako egiten ari naiz hau, ala ama perfektuaren ideala jarraitu nahi dudalako? Elkarrizketatuen testigantzetan eszena bat errepikatu da: goizeko lauretan esnea ateratzeko tresna hartuta ahaleginean, negarrez, ezin duzulako gehiago. Sakrifizioa baino, gozamina da helburua! Gainera, batzuetan, testuingurua kontuan hartu gabe deabrutzen dugu biberioa, eta etapa bat izan daiteke: elkarrizketatuetako batek, Mabelek, edoskitze mistoarekin hasi behar izan zuen, eta ondoren bi urte eta erdi egin zituen titia ematen. Bi erlaktazio-esperientzia ere jaso ditugu, baina eredu horrek laguntza eskatzen du, eta osasun sistemak ez du eskaintzen.

**Nola askatu dezakegu formula-esnea multinazionalen atzaparretatik?**

**S. Baleztena:** Marka handien monopolioa apurtzeko modurik baldin badago, nik ez dut ezagutzen. Ez dirudi erakundeek esku hartu dezaketarik. Espainian debekatu egin da formula-esnearen publizitatea, baina markek estrategia batekin konpentsatu dute oztopo hori: jarraipen-esnea saltzea. Jende askok ez daki urtebetetik aurrera hobe dela haurrek animalia- edo landare-esnea hartzea, jarraipenezkoa produktu ultraprozesatua baita; azukreduna eta askoz garestia.

**Edoskitzearen amaierari buruzko kapituluan, biberioia kentzeko prozesua ere azaltzen duzue. Gai horretan informazioa falta da?**

**N. Santacruz:** Erabat. Badirudi, biberioia ematea erabakitzen dugunok ez dugula inolako kezkarik edo beharrik. Ez da aurreikusten edoskitze artifiziala eskariaren arabera edo luzarokoa izan daitekeenik; izan ere, nutrizio-funtzioaz harago, xurgatzeak kontsolamendua ematen du eta loa errazten du.

**S. Baleztena:** Biberioia laguntzarik eskatzen ez duen eredu erraza dela uste da, eta ez da horrela. Adibidez, tetina hobeak ez okerragoak daude formaren arabera, eta informazio hori ez dago oso eskuragai. Mireiak dioenez, semerik zaharrenari formula-esnea eman behar izan zionean, markei buruz galdetu zien emaginei, eta zera besterik ez zioten esan: “Zoaz farmaziara eta eskatu esnerik garestiena”. Ez dute horri buruzko prestakuntzarik jasotzen.

**Heriotza perinataleko edoskitzeari buruzko kapitulu bat dago liburuan.**





FREEPIK

**Aukera oso ezezaguna da, osasun sisteman ere, ezta?**

**S. Baleztena:** Katalunian Noelia Sánchez izeneko doula bat dabil profesionalak prestatzen. Oso une zaugarria da bizirik ez dagoen edo hilko den haur bat erditu beharra. Sistemak bide farmakologikoa besterik ez du eskaintzen, edoskitzea inhibitzeko, baina bi elkarrizketatuk azaldu dute esnea ateratzeko eta esne bankura eramateko hautua sendagarri suertatu zitzaieela dolu-prozesuan. Dolu perinataletik haratago, titia emango ez duten pertsoneri ere aukera farmakologikoa azaltzen diete soilik.

**N. Santacruz:** Are gehiago, batzuetan gaizki azaltzen da inhibizio prozesua, badirudi pastilla hartu eta kito. Niri esan zidaten bularra estutu behar nuela bularretako batekin, eta flipatu dut liburuan irakurri dudanean kontraindikaturatuta dagoen praktika dela.

**Bular bakar batekin edoskitzeari buruzko kapituluan, odontopediatra batek azterketa profesionalak gomendatzen ditu, amarengan edo haurraren eragina aztertzeke. Ez al da arriskutsua gehiegizko**

“ ”

**Zalantzarria iruditzen zait titia aitzakia moduan jartzea gizon zisen inplikazio eskasa justifikatzeko**

Saioa Baleztena,  
liburuaren egilea

**tutoretza profesionala duen kultura perinatal elitista batean erortzea?**

**S. Baleztena:** Zoritzarrez, osasun publikoak estaltzen ez dituen behar asko daude (are gehiago indarkeria obstetrikoa jasan baduzu), hala nola psikologo perinatale edo zoru pelbikoan espezializatutako fisioterapeuta. Argi dago figura horietan inbertitzea ez dela lehen-tasuna; emaginen falta ikusi besterik ez dago. Orduan, zainketak kanpora ateratzeko logika kapitalistan sartzen gara,

guztionezko eskubidea izan beharko lukeen prozesu fisiologiko bat artatzeko. Horrek desberdinkeria izugarriak sortzen ditu.

**Edoskitzea ondoren datorren guztiaren aperitiboa da. Nola sustatu dezakegu hazkuntza gozagarri eta komunitarioago bat?**

**S. Baleztena:** Hau bezalako espazioak sortuz! Hazkuntzan ez dago bide bakarra. Ondo dago hori jakitea, eta atzera begiratzeko ariketa egitea, perspektiba hartzeko, erlatibizatzeke, dena iragankorra baita. Amildegia baten aurrean sentitzen gara maiz amatasunean. Autoexijentziak kolapsatu egiten gaitu eta horrek esperientzia gogorragoa bihurtzen du.

**N. Santacruz:** Hazkuntzarekiko interesa piztu behar dugu jendarte osoarengan. Ardura handiegia da pertsona batentzat edo birentzat, ez bakarrik ikuspuntu material edo logistikotik begiratuta. Haurrak gurasoen bidez munduratzen dira, baina ez dira gurasoenak. Garrantzitsua da, osasun-arreta hobetzeaz gain, komunitatean hezteko espazio publikoak aldarrikatzea. ●

## MAITELAN KOOPERATIBA



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Lasarte-Oriako egoitza garbitzera etortzen da Ruth Mery Pizarro Cuellar Maitelan kooperatibako langilea.

## Duintasuna ez dadin 'ni'-ra mugatu

### ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

**N**inismoaren kultura honetan ego-ki sartzen da lan-baldintza duinak norberarentzat eskatzea, norbere lantokian, norbere sektorean. E, eta guai e, ez diot inori opa lan prekarioetan aritzea. Baina bere lan-baldintza duinak eskatzen dituen horrek berdin borrokatzen al du ondokoaren duintasunagatik, kontratatzen duen pertsonaren eskubideengatik? Ala azkar botatzen dugu horrelakoetan eskua patrikara? ARGIAren Lasarte-Oriako eraikina garbitzen du Maitelan enpresak irailetik; justu sektore horretan lanean ari direnen lan-baldintzak duintzen diharduen kooperatiba baita.

Zaintzara bideratuta dago, batez ere, Maitelan, eta kooperatibako kideen jardunak osatzeko aritzen dira enpresetako eraikinak garbitzen. 2020an sortu zen,

Amher Hernaniko elkarte antiarrazista eta feministan jarduten zuten emakume arrazializatu talde batek bultzatuta. Denak zebiltzan zaintza lan prekarioetan, eta beren egoera hobetzeko asmoz erai-ki zuten gizarte-ekimenerako kooperatiba integrala.

“Helburuak garbiak dira”, dio Elisa Peredo koordinatzaileak: “Lurraldeak zaintza arloan dituen beharrak asetzeko erreminta izatea, kalitatezko zerbitzua eskainita, pertsonan zentratuta eta kontsumo jasangarria lortuz; horretan lan egiten dugunon lan-baldintzak hobetuz (soldata, desplazamenduak, gizarte segurantzak, egonkortasuna) lan duina izatea; eta Euskadin hiru urtetik gora daramaten emakumeen erregularizazioa errazteko tresna izatea”.

## Ongi etorri Komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!

“ ”

“Beste komunikabideetan aurkitzen ez ditudan albiste eta artikulua interesgarri eta garrantzitsuak irakurtzen jarraitzeko, eta euskararen aldeko apustua egiten duen komunikabide bat lagundu eta babesteko!”

Uztarrozetik Leirek

“Kalitatezko informazioa eskaintzen duen Euskal Herriko komunikabide fidagarrienetarikoa bat delako. Eta pertsona ederrez osaturiko lantalde bikaina duelako! Eutsi Argia!”


Gasteiztik Markelek

Hiru bazkide figura ditu kooperatibak: bazkide kolaboratzaileak, bazkide erabiltzaileak eta bazkide langileak. 27 bazkiderekin hasi ziren martxan 2020an eta 64 dira egun. “Baldintza hobeean lanean aritzeak dakar kalitate handiagoko zerbitzua eskaintzea, eta horrek, berarekin, erabiltzaileek gure zerbitzuak gomendatzea”, azaldu digu Peredok.

ARGIAk bat egiten du Maitelanen filosofia eta egiteko manerekin eta horrengatik kontratatatu du zerbitzua. Kooperatibako koordinatzaileak azpimarratu du beraientzat “garrantzitsua” dela ARGIA bezalako enprekin lan egitea, “sentituzko elkarrekin aldaketarako eta pertsonen bizitzak hobetzeko pausoak ematen ari garela”. ●



# Jack Danielen izena, Nathan Greenen izana



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

Tennessee (AEB), 1820. Nathan Green esklaboa jaio zen, Uncle Nearest edo Osaba Nearest ezinez ezaguna. Ez dakigu zehazki zein egunetan jaio zen eta, oro har, hari buruzko oso datu gutxi dauzkagu 1863. urtea arte, orduan lortu baitzuen emantzipazioa. Dakiguna da 1850eko hamarkadaren amaieran Dan Call predikari eta destilatzailearen whisky destilategian lanean ari zela, eta Jack Daniel mutikoa bertan hasi zela aprendiz moduan, zazpi urte zituela. Danielek ez zuen destilatzen ikasi jabearen eskutik; Nathan Green esklaboak erakutsi zion whiskia egiten.

Jack Daniel's whisky fabrika 1866an sortu zen, whisky ezagunaren etiketari jaramon egiten badiogu. Hala ere, zenbait adituk uste dute Jack Daniel gazteegia zela -16 urte inguru zituen- eta enpresaren sortze urtea 1875 inguruan izan zela. Datak data, Danielek Calli lantegia erosi zion eta ordurako gizon askea zen Nathan Green maisu destilatzaile izendatu zuen; titulu hori lortzen zuen lehen beltza izan zen.

Greenek teknika berezia garatu omen zuen whiskia egiteko prozesuan: astigar egurrez egindako ikatza erabiltzen zuen edabea iragazteko. Afrika mendebaldean ura iragazteko eta jakiak garbitzeko erabiltzen zen egur-ikatz hura, eta ziurrenik esklabo ohiak arbasoen elementu hura destilazioan aplikatu zuen. Teknika ho-



Ezkerrean, George Green, Nathan Nearest Green whisky destilatzaile eta esklabo ohiaren semea. Eskuinean, Jack Daniel, Greenek sortutako whisky ezagunari izena jarri ziona.

JACK DANIEL'S DISTILLERY

rrek zapore leun eta berezia ematen dio whiskiari.

Osaba Nearesten ekarpenaren berri ez dugu izan duela gutxi arte. 2016an Fawn Weaver idazle eta enpresaburuak Greeni buruzko ikerketa luzea abiatu zuen, 20tik gora historialari, artxibozain, arkeologo eta genealogisten laguntzarekin. Besteak beste, deskubritu zuen Green familiako zazpi belaunaldi aritu direla Jack Daniel's destilategian lanean

eta oraindik ere Osaba Nearesten oinordekoak badirela fabrikari. Baina ikerlanaren ondorio nagusia izan da Nathan Green izan zela Jack Daniel's whiskiaren formula asmatu zuena.

Orduz geroztik, Greenek luzaroan ukatutako aitortza jaso du, eta bere izena daukan whisky marka ere sortu dute. Baina ziurrenik munduko whisky ezagunena denak gizon txuri baten izena dauka, eta ez benetako sortzailearena. ●



KONURALP MUSEOEA

## Antzokirako txartel erromatarra

Turkian, Prusias ad Hypium erromatar hiri zaharrean, hainbat objektu topatu berri dituzte Konuralp Museoko arkeologoek: Afrodita jainkosaren estatuatxo bat, Dionisos jainkoari eskainitako tirso bat eta buztinezko txanpon moduko bat. Aztarnategiko anfiteatroan topatutako azken pieza txiki horrek lore-itxurako grabatua du aurkian, eta, aldiz, ifren-

tzuan, zenbaki bat dauka. Arkeologoek ondorioztatu dute pieza biribila anfiteatroko antzezlanak ikusteko sarrertxartel bat dela eta atzealdean grabatua daukan zenbakiak ikusleak zein ilaratan eseri behar zuen adierazten duela. Aurkikuntza garrantzitsua dela diote, "antzinarako Erromako antzokietako txartel-sistema agerian uzten duelako". ●

# NON DAGO HERRIA?



JOSEBE BLANCO

**M**ikro eta makro kontzeptuen arteko muga lausoa da, eta elkarren arteko eragina lausoa izan arren, eragiten du. Baita gugan ere. Arazoa dator lainopeko itsutasunean asmatzen ez dugunean gu geu non gauden, herria non dagoen.

Elgoibarren egindako *Hausnarrean* liburuaren aurkezpena etorritakoek esan zuten azoka plazarik gabe geldituko direla. Hura eraitsi eta osasun etxe berria omen doa, elegante. Ez dago azoka berraren arrastorik, ez da arnasten horren beharrik, antza. Herriaren kanpoaldean dagoen supermerkatu valentziar elegantearekin, nahikoa izango ei da: aparkalekua badu, baita autobus geltoki publikoa atarian ere. *Zero kilometro*, beraz.

Eibarren kontuak bestelakoak dira. Dirudenez, herritar batzuen presioa dela eta, Udalak bukaera eman zion baserritarren azokaren hamar urtetako agoniarri, eta Errebal Plazian kokatu zuen. Bertan Basagune izeneko denda ere badago, elikadura ekologikoa ardatz duen espazioa. Bitxia egin zait, halere, interneten azaldu ez izana baserritarren udal azokari edo Basaguneri buruzko erreferentziarik egiten dion ezer. Gehienetan, Errebal Plaza da *kulturarako eta herritarrek parte hartzeko plaza publikoa*, eta hala dio Eibarko Udalak berak ere bere webgunean.

Zalantza egiten dut kultura eta parte hartze publiko horien baitan eibartarrek baserritarren azoka ere badagoela ulertuko ote duten. Beste indar bat izan bezalako Errebal Plaziak baserritar eta ekoizleentzat. Gertuko bailaratan badago non ikasi. Nahikoa da Urola aldera jo edo Deba ibarrean gora egitea martxan dauden proiektu interesgarriekin topo egiteko; bi ibilbide ezberdin norabide berean joan direnak: gertuen dauden erakundeak, baserritarrak eta herritarrak elkarrekin elikadurarekiko ardurak hartzen.

Zoritxarrez, komunitateak indartzen dituzten proiektu horiez kalean maiz entzuten direnak ez dira gozoak izaten:



Eibarko Errebal Plaza.

TAPERARKITECTURA.COM

"Diru publikoa jaso dute hauek ere"... "herriko denda txikiei konpetentzia desleial egiten diote, itxiaraziko dituzte"... Goierrri aldean entzundakoa ez da samurragoa. Herri bateko harakina pozik hizketan supermerkatu valentziar eleganteak atea irekiko zituen hartan: aukera gehiago, eskaintza zabala denontzat... Harrezkero, bi urte pasa dira. Iritzi bera izango ote du?

Ispilua gurera ekar dezakegu eta buelta eman: azoketara eta kooperatibetara geure barazkiak, okela, esnekiak, ogiak eta abarrak saltzera goazenok non egiten ditugu erosketak? Gure hozkailu eta armairuetan zenbat aurpegi ezagutzen ditugu? "Zenbat kilometro daude Atharratzetik Tardetsera?" galdetu dit batek.

Batzuetan zaila egiten zaigu etsaia bereiztea. Lainopeko itsutasun horretan, ez gara gai herria non dagoen asmatzeko, eta bagoaz herria jango duen marrazoari geure burua eskaintzera, otzan eta pozik; inoiz eta inon geu ere marrazo izatera helduko garen ametsari jarraituz, autofagozitaziora.

Eta, noski, hilaren 6an Montevideon sinatu zen Europar Batasunaren eta Mer-

cosurren arteko hitzarmenak baserritarrok geure onetik ateratzen gaitu –geure onetik ateratzeko modukoa delako–, eta sare sozialetan eta bestelakoetan sua dargitu –eta hala behar du–, geure burua kinkan ikusten dugulako, beste kolpe bat –azkena?–. Badakigulako, besteak beste, akordio horretan EBko industriak, enpresa farmazeutikoen, energetikoen eta abarrek erraz egingo dituzten negozio horien ordainetan behi okela, soja eta bestelako nekazaritza-produktuen %82 etorriko direla arantzelik gabe.

Biraoek ahantzaraziko digute, ordea, gure hozkailuetako eta apalategietako aurpegi ezezagunak akordio horrekin lotuta daudela. Geure hilobia betetzen ari garela supermerkatuetan ustez aurreztutako euro bakoitzarekin, gure gorpuarentzat lekuri utzi gabe.

Valentzian gertatutako uholdeen testuinguruan, behin eta berriz entzun eta irakurri izan dut Antonio Machadoren bertso hura: *Herriak bakarrik salbatzen du herria*.

Gogoratuko dugu geu ere herria garelako? Asmatuko ote dugu herria zer den bereizten? ●

## A ZE FAUNA!

# BURUAN URREA, GEHIENA AKUIKULTURAN ORDEA



**ENEKO BACHILLER OTAMENDI**  
ARANZADI ZIENTZIA  
ELKARTEKO KIDEA

**B**adira hainbat espezie arrandegietan beti egotera derrigortuak diruditenak. Haien arteko arrain batek dirdira berezia du, urrezko koroarekin begiratzen baikaitu: urraburuak (gazteleraz ere, ezaugarri berari men eginez, *dorada*-k). Baina ondo dago jakitea behintzat, Espainiako estatuan erakusmahaiko hamar urraburutik bederatzi ez direla itsasoan harrapatutakoak; eta bederatzi horietatik zazpi ziurrenik Turkia edo Grezietatik ekarri dituztela. Eta gure kostaldeko urraburu basatiak lehenetsiz gero, aldea egongo dela, ez soilik zaporean.

Urraburuak gorputz luzekara du, buru handiarekin. Begi artean izena ematen dion urre koloreko marra du, are horiagoa dena arraina zahartzen doan heinean; eta orban beltza, operkuluaren gainaldea estaltzen duena. Zilar kolore grisa du, ilunagoa bizkarraldean. Hegats pektoralak handiak dira, eta haren isatsa zabala, ertz beltzekin. Tira, beste arrain bat gehiago. Baina bere xelebrekeriekin, beste behin ere.

Balear irletan akuikultura erabiltzen diren ur-tanga kontrolatuetan burututako ikerketa batean ondorioztatuenez, urraburu gazteak denbora batez harrapari baten mehatxupean badaude, hari aurre egiteko eraldaketa fisikoak eman ditzakete; esate baterako, gorputzaren altuera handitu, harrapariak zuzenean ezin izan ditzan irentsi. Aldaketa hauek itzulgarriak dira gainera, urraburu gazteentzat: behin arrisku garaia amaitzean, haien ohiko formara bueltatuko dira.

Kostalde osoan zehar, 150 metroko sakoneraraino zabaldu daitezkeen arren, bizitzako lehen urteetan kostatik hurbil biltzen dira, gazte asanbladatan, 30 metro edo gutxiagoko sakonerako hondo hareatsu edo arroksuetan. Gazteok, ordea, arazo larria dute: guztiak arrak dira. Hori gutxi balitz, bizpahiru urteren baitan, guztiak eme izatera pasako dira. Beraz, eme



ENEKO BACHILLER OTAMENDI

## URRABURUA

### *Sparus aurata*

**TALDEA:** Ornoduna/Arraina.

**NEURRIA:** 30-40 cm. Ale handienek 10 urtetik gora, 15 kilotik gora eta 70 cm inguru izan ditzakete.

**NON BIZI DA?** Atlantiko ekialde osoan (Cabo Verdetik, Ipar Itsasora), Mediterraneoan eta Itsaso Beltzean.

**ZER JATEN DU?** Molusku, krustazeo eta arrain txikiagoak.

**BABES MAILA:** Ez dago babestuta.

guztiak arrak baino helduagoak izango dira. Halako espezieei hermafrodita protandriko esaten zaie, arren heldutasuna emeena baino lehenago iristen zaielako (horixe bera, guri ez). Eta hala moldatuko dira, negu aldera ugalketa garaia iristean talde handiagotan biltzen diren sasoian: urraburu eme heldu bakoitzak duen kilogramo bakoitzeko, milimetro bateko diametroa duten bi milioi arrautza jarriko ditu. Egin kontu. Elikatzeko, bestalde, duten baraila nahiz hortzeria sendoaga-

tik, aise txikitu ditzakete hondar nahiz arroka artean topatu ditzaketen krustazeo nahiz moluskuen oskolak; arrain txikiren bat aurretik pasaz gero ere, ez diote aukerari pasatzen utziko.

Gastronomian ez dira beste arrain bat gehiago, eta hala ordaintzen dira saltokietan; basatiak direnak, garestiago, jakina. Gure herrian aisialdian urpeko laketa-arrantzan dabiltenentzat ere espezie preziatuenetakoa da. Duten garrantziagatik, hazkuntza-tasa altuagatik, elikagaietara moldatzeko gaitasunagatik, eta gazitasun baxuko uretarako tolerantzia handiagatik –ibaien itsasadarrean ere gustura egoten dira–, espezie aproposa da itsasoan jarritako hazkuntza-kaiolatarako nahiz lehorrean egindako haztegiatarako. Hauen artean elikagai naturalekin –molusku eta krustazeoekin– hazten dituzten kasu zehatzak egon badaude ere, akuikultura gehien zabalduta dagoen elikadura-mota pentsua da; eta hemen, beste mundu bat zabaltzen da, hauek sortzeko beharrezko lehengaien kopuru eta jatorrien ingurukoa. Kasuan kasu, eta urraburuaren tamaina komertziala 250 gramotik 2 kilo artekoa izaki, argi dago nekez iritsiko dela urraburuaren bat xaltomiko izatera –hala izendatzen dira kilo batetik gorako urraburuak Hondarribia aldean–, itsasoan aske ez bada.

Arrandegian erreparatu arrainaren jatorriari; galdetu, nondik datorren, eguneko arraina den, zein tresnarekin harrapatu izan den –artisansu-arrantzaileek hondoko tresperekin, gazteleraz, *palangre* harrapatu ohi dute–, edo akuikulturakoa den. Galdetu, ikasi eta hausnartu: erosten dugunaren arabera nola elikatzen dugun gure burua, eta bide batez, zer ari garen babesten –zer erosi, hura babestu–. Akuikultura gehiago sakondu nahi izanez gero, jo dakitenengana; besteak beste Mutriku aldera, han inguruan badelako akuikultura beste modu batean egin daitekeela erakutsi dezakeenik oraindik ere. ●

# TXOKOLATE MENPEKOTASUNA NEGOZIO



JAKOBA ERREKONDO  
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS



beChoc alberjina, txokolate kolorekoa. WIKIPEDIA.ORG

**T**xokolatea kakaotik sortzen da. Kakaoak *Theobroma cacao* du izena; *Theobroma* hitzak “jainkoen janaria” esan nahi du. Aspaldikoa da txokolatearen gurtza; jainkoena zena azkar asko egin genuen geure. Euskal Herrian, azukreakin eta kafearekin batera elikagaien inportazioan gehien hazten ari denetakoa da.

Txokolatea miresten dugu eta miresten guztiek bezala itsutu egiten gaitu. Txokolatearekin lotzen dugun edozer gauza edertzat dugu. Hone la sortu zuen Syngenta hazi etxeak 1970eko hamarkadan txokolate koloreko lehen tomatea: kumato aldaera (*Solanum lycopersicum*). Gero etorri ziren beste asko: Tobchoco, Bucanero, Gata lurmuturreko chocolate, Gerezi-txokolate, Raf chocolate, Chocolate Stripes, Marejada eta abar. Txokolatearekin lotzen dena hobea zaigu eta garestiago sal daiteke. Ondo garesti, izan ere patente hetsia du.

Duela urte gutxi batzuk, Rijk Zwaan hazi etxeak Sweet Palermo Chocolate edo Chocology RZ piperra (*Capsicum annuum*) aurkeztu zuen, nola ez, txokolate kolorekoa. Txokolate kolorea du, noski, baina baita harekin lotzen dugun gozotasuna ere. Inoizko dasta gozoena duen piperra dela diote. Ea noiz egiten diogun kosk, Espainian ekoizten hasiak dira eta negutegi barruan udazken-neguetan ematen du alea; ea aurten iristen zaigun. Presta patrika, honen patentea ere ondo lotua baita.

Azken berrikuntza berdantza-bart antxiti arratsekoa da, Espainiako Almerian Beyond Seeds etxeak aurkeztu berri du: beChoc alberjina (*Solanum melongena*), txokolate kolorekoa baita ere. Honela dio saltzaileak: “beChoc® merkatuan ez da soilik nabarmentzen sekula ikusi gabeko txokolate kolorearen eta forma luzangaren joko harri-garriagatik. Ahorako dasta oso onekoa da eta sukalderako balio ugari du, era-

bilera anitz ahalbideratzen dituen. Era berean, naturalki osasuntsua da, azido klorogeniko asko duelako”.

Azido klorogeniko horren berri gero eta gehiago entzuten da. Osasunerako onura franko omen dakar, oraindik elikagaien osagai bezala erabiltzeko baimenik ez badu ere. Depresioari aurre egiteko, diabetes batzuk baretzeko, antioxidatzaile ere ba omen da eta minbizia dakarten mutazioen aurkari dela ere badiote. Azido hori alberjina horrek badu, baina hauek ere behintzat bai: sagarrak (*Malus domestica*) eta sagardoak, orburuak (*Cynara scolymus*), endibiak (*Cichorium endivia*), Japoniako mizpirak (*Eriobotrya japonica*), aranak (*Prunus domestica*), azenarioak (*Daucus carota spp sativus*), lapa-belarrak (*Arctium lappa*), ekilore haziak (*Helianthus annuus*) eta mertxikak (*Prunus persica*). Eta azala txokolate kolore garestira mudatu beharrik gabe. ●

## XIBEROKO KOLEKTIBOA

# BARATZE KOLEKTIBOA MAULEN, HARREMAN SOZIALAK EREITEKO

**H**erritarrak elkarren artean saretea eta bizitza sozialerako espazioak bultzatzea da Xiberoko Kolektiboa elkartearen lanildoetako bat. Bide horretan, baratze kolektiboa sortzeko aukera suertatu zitzaizen 2020an Maulen, eta zalantzarik gabe, proiektuari ekitea erabaki zuten. “Herritar batzuk izan ziren hutsik gelditu zen Mauleko lurralde batean baratze kolektiboa egitea proposatu zigutenak, eta pixkanaka proiektua lantzen hasi ginen”, azaldu du Miren Juzan egitasmoko kideak. Zazpi herritarren artean egiten dute baratzea gaur egun, elkarlanean, eta elkartearen laguntzarekin.

## LURRA ALOKAIRU SINBOLIKO BIDEZ

Xiberoko Kolektiboa iritsi baino lehen, baratze txiki partekatu bat zegoen lursail horretan, baina aurrekoek utzi egin zuten. “Mauleko Herriko Etxearenak dira partzela horiek, eta alokairu sinboliko bat ordaintzen diegu, urtean ehun euro”, adierazi du Juzanek. Lursailan barazkiak ekoizteaz gain, loreak eta fruta-arbolak ere badituzte, eta urmael txiki bat. “Laguntzaile batek egin zuen urmael hori, eta etxola ttipiak ere egin genituen elkarlanean, materialak sartzeko”, dio.



Hiru familia dira gaur egun baratze kolektiboan aktiboki ari direnak, guztira zazpi lagun. “Tartean, badira Maulen bertan jaiotako herritarrak, baina baita kanpotik etorritakoak ere”, azaldu du. Esaterako, Afrikatik duela ez asko iritsitako familia bat proiektuan buru-belarri ari da. “Haien herrialdean laborantzan aritzen ziren, eta baratzea egitea zinez garrantzitsua da haientzat”. Lursaila pestizidarik edo produktu sintetikorik erabili gabe lantzen dute, modu biologikoan, eta ondoren, baratzekariak eta fruituak haien artean banatzen dituzte. Hori bai, ekoizpenaren zati bat kolektibo-



GARAZI ZABALETA

ren biltegi sozialera eramaten dute, bertan, egoera zaugarrian dauden pertsonak elikagaiak ohiko prezioetatik behera eskura ditzaten.

## “HARREMAN ANITZ BARATZEAREN INGURUAN”

Barazkiak eta fruituak ekoiztea ez ezik, herritarren arteko harremanak sendotzea da proiektuaren helburu nagusietako bat. Baratze kolektiboko kideak astelehen goizetan elkartzen dira lanak banatzeko eta antolatzeko, eta elkarrekin bilkurak egiten dituzte maiz, baratzean bestelako animazio eta ekitaldiak antolatzeko: “Elkartean haurrak eta gazteak ere badira, eta haiekin animazioak proposatzen ditugu baratzearen ondoan, antzerkiak eta”. Lursailaren ondoan iturria dago eta herritar asko bertaratzen dira ur bila. “Usu gelditzen da jendea baratzeari begira, galderak pausatzen dituzte... harreman anitz bada baratze horren inguruan”, gehitu du.

Urteotako ibilbidea ederra izan dela dio Juzanek, eta aurrera begirako erronka proiektua mantentzea dela. “Ez da beti erraza baratze kolektiboa mantentzea, komunikazioa eta harreman sozialak izatea. Beraz, horri eustea da inportantea”, amaitu du. ●



  
Nafarroako  
Txistorra

**ADIERAZPEN  
GEOGRAFIKO  
BERRIA**



“ ”

# Irudia alboratuta geratu da beti Euskal Herrian

Paula Estévez

Mila lan egitetik bizi dira, sarri, marrazkilaria eta ilustratzaileak. Ezaguna da sektorearen aspektu hori. Prekarietatea deitu ahal zaiona nagusiki; ikusezina izatea ere bai. Paula Estévez (Donostia, 1984), esaterako, ARGIA n ikusi izan dugu azken bost urteotan, sarri *Iritzia* sailean, baina azalen bat baino gehiago ere egin

du, eta erreportajeei loturiko lanak ere bai. Bere gisako autonomoek enkargu dezentez gehiago ere egiten dituzte. Durangoko Azokan egon da bi lan berriekin: *Linbo planeta* komiki-liburua, Elkar argitaletxearekin kaleratua, inoiz egin duen gisa honetako lanik luzeena; eta Tupust! kolektiboaren izenean, *Gu*.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA  DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA

***Linbo planeta* hartuko dugu eskuetan eta gero joko dugu beste kontuetara. Liburua zabaldu bezain pronto, dedikazio-esaldi hau: “Inoiz amesten uzten ez dion haurrari”. Ez da, baina, soilik haurrei bideratutako liburua.** Irakurtzeko erraza da, eta berez, uste dut, zortzi urtetik gorakoentzat katalogatuta dagoela. Baina gaiak merezi du bestelako irakurketa bat, eta adinean aurrera egin ahal horretan gehiago sakontzen da.

**Craig Thompson komikigile estatubatuar ezagunari egindako elkarrizketa argitaratu genuen duela gutxi ARGIA n. Berak zera aipatzen zuen, komikigilearen zeregina dela haurtzaroko grina mantentzea. Bai egile gisa, berarentzat; baina uste dut gehiago ari zela irakurleari begira. Nola bizi duzu zuk?**

Esango nuke ni naizela horrelakoa, gauza txiki-txikiekin ere ilusioa mantentzen

duen horietakoa, tartean horrelako [komikia seinalatu du] esperimenduekin. Izaeran daramat, uste dut. Baina bai, eta gustatzen zait, heldu moduan, haur esentzia mantentzen duen jendea. Neu ere saiatzen naiz horri eusten.

**Komikiek mantentzen dute hori, ezta? Esan nahi dut, gainontzeko liburuak, nobela, poesia eta abarrak, gehiago dira, *a grosso modo* esanda, “gauza serioak” eta helduei begirakoak. Aldiz, “gaizki ikusita” dago, edo beldurra eragiten digu heldu bat komiki bat irakurtzen ikusteak.**

Hori gure gizartean dagoen zerbait da. Kulturarekin du zerikusia. Japoniara joan eta metroan helduak ikusten dituzu komikiak irakurtzen. Han komikiena ez da haurren kontua soilik. Gurean, esango nuke, irudia gutxietsia egon dela beti. Azkenean, Euskal Herrian, hizkuntzari ematen zaio pisua, hitzari, galtzeko beldurra

egon izan delako beti. Eta beraz, irudia beti gelditu da pixka bat alboratuta.

Hala eta guztiz ere, galderara itzulita, esango nuke komikiak badaukala norbera bere haurtzarora lotzeko modu bat. Hortik zeozer badauka, oso interesgarria dena.

***Linbo planeta* argitaratu berritan heldu zara Durangoko Azokara. Zer kontatzen du istorioak? Zein izan zen zuri iritsi zitzaizun gidioia?**

Dejabu konpainiaren antzezlan bat da, 2017an oholtzara eramandako istorioa. Beraien eskutik heldu da proposamena. Nahi zuten *gerra*, gai gisa, haurrei gerturatzeari. Istorioa horretarako sortu zuten, haur ikuspegitik kontatzeko gerraren nolakotasun batzuk, modu jostagarri batean. Baina beste buelta bat dauka istorioak: irudimena asko lantzea eskatzen du. Ez da *gerra* gordina azaltzen duen istorioa.



### **Bada protagonista bat, Numa izeneko neskatua, zerutik erortzen diren lehergailuetatik ihes egiteko hozkailuan ezkutatzeko dena.**

Egoera gogor batean bizi da, egoera oso bortitzean, bere hiria zenaren etxehondarretan, gerrak suntsitu zuelako erabat ingurune osoa. Berak sortu du bere bizimodua, egotea suertatu zaion lekuan. Bere inguruan, bere panpinekin. Bakar-bakarrik dago, eta babeslekua du hozkailua, bai. Egoera horretatik ihes egin nahi du, horrekin amesten du, eta irudimena erabiltzen horretarako.

### **Arabiarra da istorioa.**

Bai, antzerkera ere horrela eraman zen.

### **Arabiarrez idatzitako esaldi batzuekin hasten da komikia.**

Arabiar hizkuntza entzuten zen, baita ere, antzerkian. Hala heldu zitzaidan niri.

### **Ez da esplizituki aipatzen, baina Palestinaz ari da. Ari zarete.**

Ematen dira pista batzuk ulertzeko. Numa bakarrik dago, txakur bat topatu eta bere laguna egiten den arte, eta hari kontatzen dio nola horma ikaragarri handi bat dagoen harantz joanda, itsasoa dagoela hemendik, basamortua handik... Ezin dutela alde egin, alegia. Eta erasoak jasaten ditu istorio osoan zehar. Une oro dago pentsatzen nola alde egin egoera horretatik, eta izarrak eta planetak asko gustatzen zaizkionez, horretara jartzen da: hegan egin ahal izateko tramankulu bila, ihes egiteko.

### **Istorioan aurrerago, kontatzen du Numak nola iritsi diren errealitate horretara.**

Haur bezala dituen oroitzapenak kontatzen ditu. Ez da oso kontziente zer gertatu zen, baina badaki gizon batzuk etorri zitzaizkiela beraien lurraldera, bat-batean ezin zutela ez gauza bat egin, ez bestea egin... Eta egun batetik bestera lehergailuak erortzen hasi ziren zerutik. Jende askok alde egin zuela ere oroitzen du, baina bere familiak erabaki zuen bertan geratzea, beraien etxea zaintzen. Halako bonbardaketa gau batean, babesleko, Numa hozkailuan sartzen da, eta hortik ateratzen denerako ez dago inolr hiri osoan. Militarrak baino ez.

### **Soldaduek argi diote: "Lur hauek gureak dira. Horixe dio gure liburuak".**

Argi eta garbi, hor badago okupazioaren gaia, bai.

### **Oso bizia iruditu zait kontakizuna, erraz jarraitzen da haria, eta diseinu eta ilustrazio aldetik ere aurki daitezke oso orri diferenteak. Eta bi orriko formatuan asko pentsatua.**

### **Traza hori hartu diot.**

Bai... Zaila izan da, azkenean antzezlan bat zelako. Antzezlan oso potentea iruditu zitzaidan, aktoreen aldetik-eta ondo landua zegoelako, asko betetzen zutelako oholtza, eta ikuslea adi-adi mantentzea lortzen zutelako. Baina jakina, antzezlan oholtzara mugatuta zegoen; dena hortxe bertan gertatzen zen. Komikiak eskatzen du beste lanketa bat.

[Liburua zabaldu eta orriak pasatu ahala seinatu ditu hatzaz hainbat biñeta] Lehenengo planoak marraztu daitezke, edo izan daitezke plano orokorrak, pertsonaiak mugitzea behar du... Oholtzan, azkenean, ia-ia beti hozkailuan sartuta zegoen Numa, eta oso momentu gutxitan ateratzen zen bertatik. Hori, huts-hutsean komikira pasatzea, oso aspergarria litzateke; neu aspertuko nintzen.



### **Eta zein erabaki hartu dituzu?**

Dinamismoa emateko istorioari, bilatu dut pixka bat biñetatik kanpo kokatzea elementu batzuk. Batzuetan itxiago, besteetan zabalago... Hau [komikiko zati jakin bat seinatu du, zeinetan hari baten bitartez ibilbide interaktibo bat marrazten den] asko gustatu zait egitea, jolastea pixka bat Numa inguratzen zuen lekua-reen, gehiago azaltzeko, dinamismoa

emateko, jendeak hobeto ulertzeko zein egoeratan bizi den... Jolas moduan ere funtzionatzen du.

Gero, Numa amesten eta irudikatzen hasten denean nola egingo duen ihes bertatik, kasu horretan, zer den errealitatea eta zer irudimena, narrazioaren ohiko formatuarekin hautsi nahi izan dut. Horrekin ere jolastu dut.

### **Linbo planeta albo batera utzita, Tupust! kolektiboko kide ere bazarenez, elkarrizketa hau egin baino bizpahiru ordu lehenago aurkeztu duzue Gu komiki-liburua, hemen, Durangoko Azokan. Duela zortzi-bat urte hasi zineten juntatzen Euskal Herriko hainbat emakume komikilari, feminismoa eta komikigintza uztartzeko, euskaraz egiteko [ARGIA, 2.759 alean, sakonago jorratu genuen Tupust!]. Amaiera iragarri duzue, ziklo itxiera. Etenaldia, gutxienez.**

Hasi ginen ulean planteatu genuen trilogia bat egitea: *Ni* izan zen lehenbizikoa, *Zu* bigarrena eta *Gu* hirugarrena. Beraz, zentzu horretan, iragarria zen amaiera. Dena den, taldean lan egitea, ez dakit nola esan... Azkenenean energia asko kentzen duen zerbait da. Lotu gaituena komikia da, baina berez oso pertsona diferenteak gara, hainbat lekutakoak, elkarrekin lan egiteak lanketa bat behar izan du... Erabaki dugu, hirugarren liburua eskuetan, ibilbidea oraingoz amaitzea.

### **Gu-rekin amaitzea ez da kasualitatea. Aldarrikatu izan duzue kolektibotasunean lan egitearen garrantzia.**

Bestelako euskal komikigintza bati atea irekitzea zen, nolabait, gure helburua. Ikusten baikenuen euskarazko komikigintza itxia zela estilo aldetik, gaiei zegokienean; eta oso egile gutxi ziren, eta dira oraindik, ezagunak. Nahi genuen hori zabaldu, eta horretarako hasi ginen Tupust!-ekin.

Ikusi dugu eman diegula egile askori plaza bat, beraien lana azaltzeko, eta ikusi dugu aldaketa ematen ari dela komikigintzaren esparruan ere bai. Bestelako lan batzuk ikusten ari gara azken urteetan.

### **Zer zentzutako aldaketa? Eta zein lani buruz ari zara?**

Komikilari gehienak gizonetzkoak izaten dira ia beti, eta komiki gehienak ia beti daude zuzenduta gizon gazteei. Publikoa hori izaten da. Lantzen diren gaiak oso





zehatzak izaten dira: abenturazko komikiak, historiako istorio bat kontatzen dutenak... Bestelako gai asko albo batera utzi izan dira.

Baina azken urteotan badira Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza batzuk komikiak sortzeko, eta horrek bestelako komiki batzuk egitea ekarri du. Adibidez, Maitaneren [Gartziandia] *Ño!* komikia (ARGIA, 2023). Garai batean, seguruenik, ez zuen inork argitaratuko Euskal Herrian halakorik. Aldaketa bat ematen ari da, eta pozgarria da.

**Gizonengandik aldendu eta emakumeen taldea osatu zenuten, aipatzen ari zaren helburu argiekin.** Asmo handiak daukazunean, kolektibotasunera jo besterik ez daukazu. Pertsona bakar batek ezin du egoera guztiz aldatu. Indarrak batzeko balio izan du Tupust! sortzeak, plaza hartzeko.

**Lehenbiziko liburua atera zenuten 2019an, argitaletxe batekin, baina hautsi zenuten harremana bigarren libururako bidean, ika-mikaren bat tarteko. Hala kontatu duzue liburu-aurkezpenean.**

Gauza asko gertatu ziren. Proiektuarekin hasi ginenean argitaletxeko editorea beste pertsona bat zen, eta hark apustua egin zuen oso ongi jakin gabe zer aterako zen. Justuki, liburua argitaratu baino denbora gutxi lehenago aldatu zen editorea. Eta ondo. Egia da lehen liburu horretan egileak ezagunagoak zirela, bigarren liburuan baino. Bigarrenean, egile abangoardistagoak sartzeko nahia genuen guk, berritzaileagoa izateko. Baina hori ez zen ongi ikusia izan. Hasieran bai, ar-

“ ”

***Eman diegu egile askori plaza bat; ari da aldaketa ematen komikigintzaren esparruan***

gitaratuko zutela esan ziguten, baina lana ikusterakoan atzera bota ziren.

Guk gure egile ziren kolaboratzaileekin adostuta geneukan argitaratuko genuela, eta gutako batzuk ohitu samar gaudenez autoedizioan aritzera, guk atezratzea erabaki genuen.

**Pentsatzen dut, argitaletxeen ikuspegitik, ez zaiela errentagarritasun ekonomikorik ikusten gisa honetako liburuei.**

Irudiak dauzkaten liburuek, noski, askoz errentagarritasun txikiagoa dute. Inprentaren gastuak handiagoak dira, paperarenak, hortik hasita. Egia da ere publikoak txikiagoa dela, ez bada haurrentzat sortutako zerbait. Haurren literaturan badago salmenta aurreikuspen batzuk betetzeko aukera.

Komikiak irakurtzen dituzten helduak gutxi dira, eta horregatik errentagarritasuna, pentsatzen dut, txikiagoa dela. Agian horrelako lan bat argitaratzeak nolabaiteko konpromisoa eskatzen dio argitaletxeari. Alegia, ez hainbeste diruari begirako zerbait, baizik eta

“honek existitu behar du” esatea. Batzuk badaukate konpromiso hori eta beste batzuek ez dute hartu nahi.

**Liburuaren aurkezpenean zeuk aipatzen zenuen, Paula, komikigintza ezkutuan dagoela, eta horri ahotsa emateko helburua duela kolektiboak. Ikustarazteko bidean, argitaletxerik gabe, erraza al da?**

Saiakera egin dugu guk Euskal Herrian dauden egile ugari horiei lekua emateko. Baina egia da, argitaletxeren baten babesa ez edukitzeak ez du horrenbesteko ikusgarritasunik ematen, ikusi dugu hori horrela dela. Baina beno, lehen liburu hura irakurri zuena, espero dut, hirugarren honetara ere iritsiko dela, eta ez dela bidean geldituko.

**Komikiak, ilustrazio liburuak oro har, bigarren plano batean pasatzen direla komentatzen zenidan elkarrizketa hasi aurretik.**

Pena da. Azkenean, izen handi batzuek, gutxi diren arren, dena hartzen dute, eta beste guztiok izkinatan geratzen gara.

**Durangoko Azokan bertan ere bai. Ez dira apenas aurkeztu.**



Bakarrik izen handienak dira aurrera egiten dutenak, eta gaiarekin asmatzen badute, are gehiago.

Lan oso on eta oso polit batzuk alboratuta geratzen dira, hori horrela da. Eta denok Durangoko Azokara begira jartzen garela, itsu-itsuan, hori ere horrela da. Eta hala baldin bagabiltza, bazterrean geratuko dira asko. Ez baitu ematen honek mila liburu ganoraz erakusteko. ●



# Puzlea

KOKA EZAZU PIEZA BAKOITZA DAGOKION TOKIAN ETA EZTIZEN ARTOLAK, GURPILAK ELEBERRIA ARGITARATU BERRI DUEN MOTXILADUN HAURRAK, ESANDAKO ESALDI BAT IRAKURRIKO DUZU.



# Sudokuak

BETE ITZAZU GELAXKAK 1 ETIK 9 RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.


# 5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

		7	8	5	2	4	3		
	6	3	7	1	4	9	2	8	
			6	9				5	
	8		1	2		3	5	9	
	7					1	6	2	
	2	5	1			3	8	4	7
	4		2					9	
	8		6					7	
	9	3				6			

5	6			3				9
3			6	8			1	7
				9				6
		1						
				7	1		9	
6	7						8	
			5	6				
4							7	
2			1	3	7	5		

1. ... jo, aukeratu.
2. Zer bait edaten duena.
3. Lirain, sotil.
4. Bizitasunik gabe.
5. Nori.



# Hizki berak

OSA ITZAZU HITZAK FALTA DIRENAK HIZKI BERAK DIRELA KONTUAN IZANIK, HORI BAI, HURRENKERA EZ DA ZERTAN BERA IZAN.

1				L	D	I	A	K
2	B				Z	A	L	E
3	O	R				T	U	Z
4	T	R	U				R	A
5	K	A	Z	I				K
6	K	O	L	O	R			

## EBAZPENAK

9	3	2	2	4	7	6	5	8	1
8	1	6	9	3	3	2	7	4	
7	4	5	2	8	1	6	9	3	
2	5	1	6	9	3	3	8	4	
3	7	9	5	4	8	1	6	2	
6	8	4	1	2	7	7	3	5	
4	2	8	3	6	9	7	1	5	
5	6	3	7	1	4	9	2	8	
1	9	7	8	5	2	4	3	6	

2	8	9	1	3	7	5	6	4
4	5	6	2	9	8	1	7	3
1	3	7	5	4	6	9	2	8
6	7	3	9	5	2	4	8	1
8	4	5	3	7	1	6	9	2
9	2	1	8	6	4	7	3	5
7	1	8	4	2	9	3	5	6
3	9	4	6	8	5	2	1	7
5	6	2	7	1	3	8	4	9

**PUZLEA:** "HAINBESTE ERROMANTIZATU DUGUNEZ AUZIA, EZ GARA KONTZIENTE ESPETXEAK SOR DITZAKEEN ONDORIOEZ. OSO IKERKETA GUTXI EGIN DIRA MOTXILADUN HAURREI BURUZ." **5XS:** 1. BEGIZ, 2. EDAL, 3. GALAI, 4. ILAUN, 5. ZEINI. **HIZKI BERAK:** 1. KEALDIK, 2. BAKEZALE, 3. OREKATUZ, 4. TRUKAERA, 5. KAZIKEAK, 6. KOLOREAK.



# Nora egon gara begira

✍ IÑIGO SATRUSTEGI 📷 KOLDO OTAMENDI

**G**ogoan dut Erasmuseko lehenengo hilabetean ikusi nituela aurreneko aldiz Belakokoak zuzenean. Ez nintzen haiek ikustera joan, azkenean bertan behera geratu zen kontzertu bat baizik. Trukean, Belakok bi aldiz jo zuen. Ez zidan grazia apurrik egin. Eta urte batzuk beranduago hemen nago, haiei buruz hainbat gauza esateko ditudalako, Zentralen Anarirekin batera abiatu duten biraren harira. Haiek ikustera joan naiz: bada aldaketarik.

Anarik berotu du giroa aurrea. Sarriegi esan dugu musika melankolikoa (eta beste gauza *gore*-ago batzuk ere bai), baina beste rolo bat da azken diskoa, eta are, zoragarri defendatu du jendaurrean. *Gero jarriko ditugu sutan kristalezko dorreak* esanda amaitu du, eta etorri dira mungiarrak.

Urduri direla eta hori badela seinale ona, Josu Ximunek. Eta nik Belakoren zuzenekoaz esanen ditudanak: brutala da hasiera, tarteko bertsioen bat dago, momentu batean argi teknikiariak erabaki zuen LGTBIQ-ko *T* eta *I* hizkiak *G*-arenak balira bezala irudikatzea [*fabula argitsu bat, garai ilun batentzat*], eta amaiera ere (ez kolaboa bakarrik) brutala da. *Deus ex machina* zoragarria izan zen. Espektatibak altu genituen kantua aste osoa buklean entzuten aritu ostean. Eta bete zituzten, ongi bete ere.

Maketa lehiaketa irabazi zutenetik, ibili dira han eta hemen. Baina gehiago han. Ezta? Ez dakit, irudipena dut azken urteetan, *Plastic drama* (2020) hartatik, gero eta gehiago ari direla Euskal Herriko zirkuituetan mugitzen.

## ANARI + BELAKO

**NOIZ:** abenduaren 5ean.


**NON:** Iruñeko Zentral aretoan.

Bitxia iruditzen zait fenomenoak. Nola ikusi ahal izan ditugun estatuko jaialdi eta aretoetan, kartelburu, eta hemen ez genituen baloratzen edo ez zuten topatzen lekurik haiek. Eta, egun, talde gaztetxero/txosnero horren barruan sartzen direla esatea ez da irristakada handi bat. Ez ditut ezagutzen ez taldekideak ez arrazoiak, baina kanpotik ikusita behintzat, halako sentsazioa ematen du: haiek atzera begiratu dute Euskal Herrira, eta guk, erantzun. Horren adibide argia izan daiteke, era berean, Anarirekin egindako kantatzarra. Baina tira, hauek guztiak I Ese Ak dituen burutazioak baino ez dira.

Hau idatzi dudan egunean Bilbon eta Donostian ez da geratzen sarrerarik bira txiki honetarako. Baina, ahal duzuela, ba hori: segi hauena ikustera. ●



# Umore zoroa



## NON SENSE LIBURUA

EDWARD LEAR  
ITZULTZAILEA:  
JUAN KRUZ IGERABIDE

DENONARTEAN, 2024

XABIER ETXANIZ ERLE

**E**dward Lear idazle eta ilustratzaileak 1846an argitaratu zuen esku artean dugun obra hau. Igerabidek liburuaren hitzaurrean dioen bezala, “nonsense umorea, umore zentzugabea, oso umore ingelesa dela esan daiteke, zentzu zabalean”. Lear-en obrari buruz John Ruskin idazlearen komentario hau ere aipatzen digu: “Denik eta libururik xaloena eta mesedegarriena omen da”. Horrengatik bakarrik merezi zuen liburuak euskaraz argia ikustea.

Haur literaturako klasiko hau hainbat eta hainbat konturi buruz ari zaigu, gizakion arteko harremanez, hezkuntzaz, beldurraz, aitona-amonon bitxikeriez, eta abar. Lear bizi izan zen bitartean 25 aldiz berrargitaratu zen liburuak, eta egun, obra bitxi eta zaharra izanik,

gaurkotasuna eta ekarpena egiten duen lana dela uste dugu.

Ia 120 limerick-ek osatzen dute liburuak, alegia, “bertso umoretsu, umore zorokoa, umore zentzugabekoa, edo, hobeto esanda, zentzuz kontrakoa”, Igerabideren hitzetan. Bost lerroz osatuak dira eta lehen biak elkarrekin errimatuak; hurrengo biak, laburragoak, elkarrekin ere errimatuak beste errima batekin; eta azkena, hasierakoekin tamaina eta errimakoa. Limerick bakoitza, gainera, irudi batekin osatua agertzen zaigu.

Liburuak jolasteko obra dugu; poema laburrez eta umoretsuez osatua. Hori bai, umore ingelesa: “Agure zahar batek zeukan tinbala, / jotzen zuen egun osoan nahi ahala. / Garrasi egun zioten:

'Jainkoarren! / zeinen agure gogaikarria zaren!'. / Eta bera zanpatzeko erabili zuten tinbala”. Edo beste hau: “Bazen bat, ohitura bitxia zuena: / bada, untxi bat irenstea, den-dena; / hamazortzi jan halaxe, / berde jarri zen geroxe. / Ez zuen gehiago jan handik hurrena”.

Idazleak bere bizitzan asko bidaiatu zuen eta hori ere nabaria da protagonisten herrialdeetan, Europa eta Asiatan hainbat lekutan kokatuta baitaude hauek; baina Troiakoa izan, Norvegiakoa edo Kamtxatkakoa, umore puntua eta elebrikeria izango ditu beti ondoan.

Eskertzekoa da, beraz, Igerabidek eta Denonartean argitaletxeak eginiko apustua munduan ezaguna den obra honen euskal haurrek, eta ez hain haurrek, barretxo batzuk egin ditzaten. ●



MUSIKA

# Benetako gozoki musikala

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

**O**so gutxitan izaten dugu Giacomo Pucciniren triptiko hau berak pentsatu bezala entzuteko aukera: saio berean. Hiru obra labur, giro diferenteetan antzezten direnak, eta horrek eskatzen duen bakarlari kopuru handia, erronka izugarria da. OLBEK arrakastaz bete zuen erronka hori, dudarik gabe.

Puccini jeinuaren hiru lanen arteko ezberdintasunak gorabehera, egokiena da modu horretan antzeztea, elkarren segidan. Batetik, hiruren artean hari gidari eztaba daezin bat dago: heriotza. *Il tabarro* hilketa batekin amaitzen da; *Suor Angelica* lanaren amaiera mojarren suizidioa da; eta *Gianni Schicchi* Buoso Donatiren heriotzarekin hasten da, haren herentzia goxoak ondorengo ekintza guztia eragiten duelarik. Lehenengo bi operak drama eta iluntasun giroan gertatzen dira, eta hirugarrena distiratsua da, umorez, txinpartaz eta injenioz betea. Gozamina, oro har.

Interpretazio-maila altua izan zen hiru tituluetan. *Il Tabarro*-n Carlos Alvarez baritonoa nabarmendu zen, Micheleren paperean, aktore gisa bikain, eta ahots garbi eta kementsua erakutsita, beti bezala. Baina Angeles Blancas sopranoaren taula gaineko aisetasunak eta ahotsaren dotoretasunak entzuleak liluratu zituzten.

E. MORENO ESQUIBEL



## PUCCINIREN 'IL TRITICO'

**NORK:** Nafarroako Orkestra Sinfonikoak eta Bilboko Opera Abesbatzak.

**ESZENA ZUZENDARIA:** Paco Azorín.

**BAKARLARIAK:** C. Álvarez, A. Blancas, M. Berti, C. Isotton, K. Mattila, A. Ibarra, S. Esparza eta I. Hotea.

**NON:** Bilboko Euskalduna Jauregian.

*Suor Angelica*-n drama ia mistiko eta delikatu batean murgildu ginen. Pucciniren musika, lan labur honetan, bere ekoizpen guztiaren gozonenetakotzat jo daiteke. Obra honek soprano elegantea eskatzen du, paperak dakarren emozio maila transmititzen dakiena. Chiara Isotton florentziarrak bikain bete zuen bere papera. Pertsonaiari aura estilizatua eman zion, denok zerura eraman gintuena. Karita Mattila soprano finlandiarrak, bestalde, enpake handia eman zion Zia Principessa pertsonaia gaiztoari.

Hirugarren zatiak, *Gianni Schicchi*-k, kontrapuntu komikoa eta animatua ematen die aurreko dramei. Lan korala da, eta horrek esan nahi du muntatzeko zaila dela, eta paper bakoitza oso garrantzitsua dela osotasunean. Emaizta bikaina izan zen. Protagonistarentzat konposatutako aria gozoa, *O mio babbino caro* ospe-tsua, oso ondo abestu zuen Sofia Esparza soprano nafarrak, oso seguru aritu zen Laurettaren paperean. Ioan Hotea tenore errumaniarrak ere interpretazio bikaina izan zuen, eta berriz ere Carlos Alvarez taxuz aritu zen Gianni Schicchiren paperean, sendo ahotsaren aldetik, eta sinesgarri.

Bilboko Opera Abesbatzaren aktuzioa eraginkorra izan zen, baita Pedro Halffterren zuzendaritza ere. Era berean, ezin ditut ahaztu biribiltasunez aritu ziren gainerako bakarlariak. Eta aparteko aipamena merezi du Paco Azorínen eszena-zuzendaritza bikainak. ●

# Luigi Mangione esplikatzen

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

**E**splikazio baten bila dabil jende guztia abenduaren 4tik. 6:45: Brian Thompson, UnitedHealthCare enpresako burua –AEBetako osasun-aseguru pribatuen sektoreko handiena–, New Yorkeko Hilton hotelerantz doa, inbertsoreen kongresu batean parte hartzeko. Aurpegia estalita daukan pertsona batek bost minutu daramatza hantxe, beraren zain. Thompson ikusi duenean, tiroka hil du. Eta gero alde, bizikleta elektriko batean, polizia eta prentsa bi zehabete sudur utzita. Tiroen ustezko egilea handik bost egunera McDonald's batean atxilotu dute. Luigi Mangione du izena, 26 urte ditu, eta atzeman dutenean gainean darama hilketan ustez erabilitako arma, baita eskuz idatzitako dokumentu bat ere, asuntu guztia zergatik egin duen esplikatzen duena.

[Irakurle baten iruzkina] Ea, ea, akklaratu dezagun kontu hau: paragrafoa hasi duzu esanez hilketaren esplikazio bila dabiltzala denak. Eta bukatu duzu esanez ustezko hiltzaileak bere motiboak esplikatu dituela jada. Zer ari zara kaka nahasten, Bereziartua?

[Egilearen erantzuna] Irakurle maitea, eskertzen dizut ohar hori egin izana –nahiz eta tonu atseginago bat eskertuko nizukeen, egia esan–, aukera eman baitidazu artikulu honetan fisika kuantikoaren oinarrizko kontzeptu batzuen dibulgazio-lana egiteko. Ba al zenekien, adibidez, zenbait partikula subatomikorentzat ez dela hain arraroa bi gauza izatea aldi berean? Fisikaren eremuko jakintza horri eranstean badiogu etekin ekonomikoaren logika, ez da zaila ulertzea zergatik kapitalismo kuantikoan, Thompsonen hilketak esplikatu dagoen eta ez dagoen esplikatu, biak batera.

[Irakurle baten iruzkina] Zure dealer-aren telefonoa nahi dut. Zer sartu duzu sudurretik, txo.

[Egilearen erantzuna] Ura gatzarekin –katarro pixka bat azkenaldian–. Ez, baina serio. Historia honen mamiari erreparatu zergatik, Mangionek idatzitakoarekin nahikoa eta sobran dago gertatu dena ulertzeko. Tipok datu batzuk eman ditu –AEBetako osasun-sistema dela munduko garestiena eta, aldiz, bizi-itxaropenaren rankingean

42. postuan daudela–; iruditzen zaió aseguru pribatuen sektorea indartsuegia bilakatu dela, jendeak hori gertatzen utzi duelako; eta haien ustelkeria aspalditik dela ezaguna, baina horrek ez duela problema konpondu. Alegia, une honetan auzia ez dela kontzientzia-zioa, jokoan dauden botere-harremanak baizik.

Problema handi bat dauka azalpen horrek, ordea. Ez du aukeraren leihorik irekitzen negozio berriak egiteko –ez baldin bada 3D inprimagailuen alorrean, antza denez horrelako batekin fabrikatu baitu Mangionek hilketan erabili duen pistola–. Aldiz, gertakariaren detaile ñimiñoenean arakaturik bestelako esplikazioak bilatzen hasten bazara, dena da *business*: izuaren ekonomia pozik dago, segurtasun-enpresa pribatuak hortzak izerditan, orain CEOek bizkartzainetan gehiago gatatuko dutelako. Aseguru medikuak saltzen lan egiten duten eskala baxuagoko enplegatuek berriz, armak edo balen kontrako txalekoak erosiko dituzte, zer gerta ere. Espektakuluaren ekonomia ere kriskitinak jotzen: kasua esplikatzen duten telesailak, liburuak –zergatik ez: musikalak!– laster zure plataforma gogokoenetan. Ez ahaztu negozioaren ezkerreko aldea ere: soziologo eta ikerlari kulturalak korrika eta presaka hilketak azaltzen duten *paper*-ak produzitzen; Mangione heroiztat hartzen duen *merchandising*-a bi kliketan erosteko aukera onahi... Pentsa, argitaletxe batek egoera aprobetxatu du bere bildumako zenbait libururen zerrenda proposatzeko –Eguberrietan gaude eta, aizu, saldu behar da–.

[Irakurle baten iruzkina] Baina artikulu hau ere ez al da deskribatzen duzun dinamika horren parte?

[Egilearen erantzuna] Ez, ez, mesedez: hau ezinbesteko ariketa kritiko bat izan da. Kapitalismoaren morroiak besteak dira. Beti. ●





# Oparitu ARGIA

## → Zer ari naiz oparitzen?

ARGIA astekaria paperean astero.  
Larrun paperean hilero. Urtean behin  
Gakoak aldizkari berezia, udako oporretan.

## → Zenbat balio du?

Zuk erabakiko duzu zenbat diru  
jartzeko prest zauden proiektu honen  
alde, urtebeteko harpidetzaren truke.

## → Zer bidaliko didazue niri?

Etxera bidaliko dizugu, opari gisa emateko  
bonua gutun-azal berezi batean. Ordainketa  
egitean bonua PDF formatuan ere bidaliko  
dizugu, zuk zeuk inprimatu nahi baduzu.

## → Noiz hasiko da?

Harpidetza oparia jaso duenak bonua  
aktibatzean hasiko da eta urtea  
amaitzen denean ez da automatikoki  
berrituko.

# ekologikoa, dena hobetzeko!



**Nekazaritza ekologikoan argi dugu  
Zuk ere argi baduzu,  
kontsumitu elikagai ekologikoak**

Bilatzailea  
ekolurra.eus



*“Zigilu ekologikoa ofiziala da, eta ziurtatzen du  
produktua benetan zainduta dagoela”*

Ainhoa, abeltzaina

*“Osasuntsua eta naturala barazkiak lurrean haztea eta ganadua  
aire zabalean bizi da. Hau da logikoa, ekologikoa!”*

Kepa, elaboratzailea

*“Nire erreleboari lur emankorra eta etorkizun hobea eskaini  
nahi dizkiot, agrokimikorik gabea”*

Jon, nekazaria



Euskadiko Nekazaritza eta  
Elikadura Ekologikoaren  
Kontseilua  
Consejo de Agricultura y  
Alimentación Ecológica  
de Euskadi

Babesleak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ELIKADURA, LANDA GARAPEN,  
NEKAZARITZA ETA  
ARRANTZA SAIA

DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN,  
DESARROLLO RURAL,  
AGRICULTURA Y PESCA